



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko maiatzaren 30a

58 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

—Orbaibar aldeko udalei buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).

—Orbaibar aldeko udalen arrazoizkotasun ekonomikoari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina (26. or.).

G Saila:
TXOSTENAK, DEIALDIK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Orbaibar aldeko udalei buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 11n eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak eginiko Orbaibar aldeko udalei buruzko fiskalizazio-txostena, 2000ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2002ko martxoaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Orbaibar aldeko udalei buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (3. or.).
- IV. Barasoingo Udala (3. or.).
 - IV.1 Iritzia (3. or.).
 - IV.2 Finantza-egoerak (5. or.).
- V. Garinoingo Udala (7. or.).
 - V.1 Iritzia (7. or.).
 - V.2 Finantza-egoerak (8. or.).
- VI. Leozko Udala (10. or.).
 - VI.1 Iritzia (10. or.).
 - VI.2 Finantza-egoerak (11. or.).
 - VI.3. Orbalan, SL enpresaren finantza-egoerak (13. or.).
- VII. Olorizko Udala (13. or.).
 - VII.1 Iritzia (13. or.).
 - VII.2 Finantza-egoerak (14. or.).
- VIII. Orisoaingo Udala (16. or.).

VIII.1 Iritzia (16. or.).

VIII.2 Finantza-egoerak (17. or.).

IX. Puiuko Udala (19. or.).

IX.1 Iritzia (19. or.).

IX.2 Finantza-egoerak (20. or.).

X. Untzueko Udala (22. or.).

X.1 Iritzia (22. or.).

X.2 Finantza-egoerak (23. or.).

I. SARRERA

Orbaibar aldea Nafarroaren erdialdean dago, Iruñetik hegoaldera eta Tafallatik iparraldera, azken herri horren eragin-eremuan. Herri hauek dira Orbaibar aldekoak: Barasoain (518 biztanle), Garinoain (358 biztanle), Leotz (281 biztanle), Oloritz (186 biztanle), Orisoain (102 biztanle), Puiu (332 biztanle) eta Untzue (138 biztanle).

Udalok ez dute, berez, erakunde administratibo bat osatzen, baina gehienak, Orbaibarraren garapenerako elkartearen bidez, elkarrekin lan egiten hasiak dira.

Udalok ez dute ez erakunde autonomo ez enpresarik ere. Salbuespena Leozko Udala da, sozietate baten titularra baita; Orbalan, SL du izena eta irabazi asmorik gabeko sozietatea da, enplegua eta ingurumenaren babesa helburu dituen tokiko ekimena.

Udalik gehienak hurrengo mankomunitate eta partzuergoetan sartuta daude:

- Orbaibarraren garapenerako elkartea.
- Mairagako Ur eta Hondakin Solidoen Mankomunitatea
- Tafalla Aldeko Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen Mankomunitatea.

Eraginkortasun arrazoiak direla medio, eta ikuspegi orokorra ematearren, agiri bakar batean

aurkeztu dira Orbaibarra osatzen duten toki era-kunde guztien fiskalizazio txostenak.

Txosten honen osagarri, beste bat egin dugu, non aztertu baita ibarreko zerbitzu publikoen arrazoizkotasuna.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Orbaibar aldeko udalen 2000ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazioa egin dugu. Halaber, ekitaldi horretako gastu eta dirusarrerara aurrekontuen betetzea ere fiskalizatu dugu.

Fiskalizatutako toki entitateei aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aurretik aipaturiko legeek, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuak, kontularitza eta administrazio-kontratazioari buruzko arauak eta Nafarroako toki-enteei orokorki aplikatzekoak zaizkion gainontzeko arauak.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- a) Udalen 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.
- b) 2000ko abenduaren 31n zegoen ondare-egoera islatzea, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraituz.
- c) Udalen jarduera ekonomiko-finantzarioa legezatasun-printzipioari lotua egon ote den.
- d) Zein zen udalen finantza-egoera 2000ko abenduaren 31n.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganbarak Orbaibar aldeko udalen 2000ko ekitaldiko fiskalizazioa egin du.

Udalek, eragiketarako erregistratzeko, Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitate Sinplifikatutako Instrukzioa (273/1998 Foru Dekretua) erabiltzen dute. Instrukzio hori 2000ko urtarrilaren 1ean ezarri zen udal guztietan; egun horretatik aurrera, nahitaezkoa zen instrukzio hori ezartzea.

Beraz, eginiko lanak hauxe izan du arretagai: dirusarrerara eta gastuei buruzko atal ekonomikoak berrikustea, antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion hainbat puntu aztertuz.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsiriko fiskalizazio-printzipio eta arauak jarraituz burutu dugu lana. Era berean, egoera kontuan hartuz eta alde aurretik udalei bidali genien galdere-sortak agerian utzitako arazoak kontuan hartuz beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatu ditugu.

Udal inbentarioaren ezak –hori da balantze egoeretako kontusail nagusia– mugatu egin du udalen ondasun-egoerari buruz egin dugun azterketa.

Txostenean daude udalen kudeaketa hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

Azterketa lana 2001eko uztailaren, irailean eta urrian egin dugu.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak ematen dizkiegu udaletako langileei.

IV. BARASOINGO UDALA

IV.1. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Barasoaingo Udalaren 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Berrikuspina egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

IV.1.1. Aurrekontuaren likidazioa

Honekin batera doa 2000ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, behar bezala erakusten dituena fiskalizaturiko ekitaldian Udalak egindako eragiketak.

IV.1.2. Ondare-egoeraren agerpena

Udal inbentarioa behar bezala garatua ez egoiteak, 2000ko abenduaren 31ko balantze-egoerako kontusailik garrantzitsua baita, ezinezko egingen digute Udalak 2000ko abenduaren 31n duen ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

IV.1.3. Legezatasuna

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezatasun-printzipioari jarraituz gauzatu da, nahiz eta aurrekontu alorreko hainbat ez-betetze antzeman diren; bereziki, hauek:

- Aurrekontua onesteko epeak ez dira bete.

– Aurrekontuko zenbait gasturen mugak ez dira errespetatu; kapituluetan ere gertatu dira horrelakoak.

IV.1.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa

Barasoingo Udalak finantza-egoera garbia du 2000ko abenduaren 31n, ia zorrik gabea; aurrezki garbiak 19,4 milioi pezeta egiten du ekitaldia ixtean. Diruzaintza-gerakina 45,3 milioikoa da.

Laburtuz, eta ondorio nagusi gisa, esan genezake

- Barasoingo Udalak modu egokian kudeatzen dituela aurrekontuak, administrazio-ikuspegi batetik begiraturik. Hala ere, honako hau du beharrezko:

a) Aurrekontuaren garapen eta gauzatzea arautzeko, betetze-oinarri batzuk prestatu behar ditu.

b) Aurrekontuak egiteko teknikak hobetu behar ditu, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko, batez ere inbertsio errealen eta kapital-transferentzien alorrekoak.

c) Gastu-obligazio bat aitortu edo indarreko legeriaren araberrako aurrekontu-aldaketak egin baino lehen, aurrekontu-kreditu nahikoa dagoela egiaztatzeko beharrezkoak diren prozedurak ezarri behar ditu.

d) Informazio-prozesuak abiarazi behar ditu jasotako dirulaguntzen bidez finantzatzen diren gastu eta inbertsioen jarraipena egiteko.

e) Gastu guztietarako, horien zenbatekoa gorabehera, behar den egiaztagiria eskatu behar du.

f) Organo eskudunak onetsi behar ditu tributukontzeptuen erroldak eta karga-tasak; horretaz gain, egin beharreko argitalpen-iragarkiak egin behar dira kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, lege ezarritako korrituak eta erreargua ezarriko dira.

g) Inbertsioak besterentzearen ondoriozko eskubide-likidazioak hemen behar dute isla:

– Udal inbentarioan: bertan zuten balioaren baja erregistratu behar da.

– Eraitza ekonomikoaren egoeran; izan ere, hor islatu behar dira, besterentzean izaniko salmenta-neurriaren eta inbentarioko balioaren arteko aldea dela eta, inbertsioak saltzeak eragindako ez-ohiko etekin edo irabaziak.

h) Udal inbentaria elementuak banaka kontuan hartuz garatu behar du, eta balantze-inbentariaren egoeraren ibilgetuarekin batu.

- Finantzen ikuspuntutik, Udalak oso egoera garbia du, ia zorrik ez baitu, eta diruzaintza-gerakina, aldiz, handia delako.

IV.2. FINANTZA-EGOERAK

IV.2.1. 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa

DIRUSARRERAK	Aurrekontua		Likidaturiko eskubideak		%
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	Betetzea
1. Zuzeneko zergak	15.170.036	15.170.036	15.538.989	93.391,20	102,43
2. Zeharkako zergak	3.000.000	3.000.000	3.815.497	22.931,60	127,18
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	2.258.320	2.258.320	2.785.407	16.740,63	123,34
4. Transferentzia arruntak	18.737.729	18.737.729	18.924.175	113.736,58	101,00
5. Ondare dirusarrerak	5.768.000	5.768.000	5.833.300	35.058,84	101,13
6. Inbertsio errealak besterentzea	5.200.000	5.200.000	8.000.000	48.080,97	153,85
7. Kapital-transferentziak	33.590.735	33.590.735	9.862.413	59.274,30	29,36
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	1.060.000	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
DIRUSARRERAK, GUZTIRA	83.724.820	84.784.820	64.759.781	389.214,12	76,38

GASTUAK	Aurrekontua		Aitorturiko obligazioak		%
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	Betetzea
1. Langileen ordainsariak	10.415.102	11.115.102	11.829.066	71.094,12	106,42
2. Ondasun arruntak eta zerb. erostea	16.066.349	16.066.349	14.411.373	86.614,10	89,70
3. Korrituak	307.596	307.596	307.596	1.848,69	100,00
4. Transferentzia arruntak	1.570.741	1.570.741	600.242	3.607,53	38,21
6. Inbertsio errealak	55.037.425	55.397.425	17.502.043	105.189,40	31,59
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0,00	
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	327.607	327.607	326.607	1.962,95	99,69
GASTUAK, GUZTIRA	83.724.820	84.784.820	44.976.927	270.316,79	53,05

ALDEAK	0	0	19.782.854	118.897,33	
---------------	----------	----------	-------------------	-------------------	--

IV.2.2. Balantze-inbentarioaren egoera

AKTIBOA		PASIBOA	
Deskribapena	Ekitaldia ixtean	Deskribapena	Ekitaldia ixtean
Ibilgetua	375.829.509	Funts berekiak	421.008.640
1 Ibilgetu materiala	346.334.295	1 Ondarea eta erreserbak	398.725.944
2 Ibilgetu ez-materiala	392.980	2 Emandako ondasun eta eskubideak	0
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	0	3 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	22.282.696
4 Herri-ondasunak	29.102.234	Epe luzeko zorrak	5.955.352
5 Ibilgetu finantzarioa	0	4 Jasotako jesapen, mailegu, fidantza eta gordailu	5.955.352
6 Lagapen edo adskripzio bidez jasotako ondasun eta eskubideak	0	Epe laburreko zorrak	10.301.581
Zirkulatuzailea	61.436.064	5 Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	753.979
7 Zordunak eta itxitako aurrekontuak eta aurrekontuz kanpokoak	6.500.262	6 Aurrekontuko hartzekodunak	9.547.602
8 Aurrekontuko zordunak	15.389.471		
9 Finantza-kontuak	39.546.331		
Aktiboa, guztira	437.265.573	Pasiboa, guztira	437.265.573

IV.2.3. Emaidza ekonomikoaren egoera

ZOR		HARTZEKOAK	
Deskribapena	Ekitaldia ixtean	Deskribapena	Ekitaldia ixtean
61 Langile gastuak	11.829.066	70 Salmentak	2.785.407
62 Finantza-gastuak	307.596	71 Jabetzaren eta enpresaren errenta	5.833.300
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	14.411.373	72 Ekoizpenari eta inportazioari lotutako tributuak	15.932.280
67 Transferentzia arruntak	600.242	73 Errenta eta ondarearen gaineko tributuak	2.269.668
68 Kapital-transferentziak	0	76 Transferentzia arruntak	18.924.175
69 Kalkulatutako gastuak	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	1.152.538
D80 Ekitaldiko emaitza negatiboa	0	78 Bestelako dirusarrerak	551.026
D82 Inbertsioak saltzeak eragindako galerak eta bestelako ez-ohiko galerak	0	H80 Ekitaldiko emaitza positiboa	20.300.117
D83 Finantza-aktiboak saltzeak eragindako galerak	0	H82 Inberts. saltzeak eragin. irabaziak	2.000.000
D84 Itxitako aurrekontuetako baja eta deuseztatzeak	726.553	H83 Finantza-aktiboak saltzeak eragindako irabaziak	0
D89 Ekitaldiko emaitza ekonomiko negatiboa	0	H84 Itxitako aurrekontuetako alta eta preskripzioak	709.132
		H89 Ekitaldiko emaitza ekonomiko positiboa	22.282.696

Francisco Javier Sesma Masa auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2002ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

V. GARINOINGO UDALA

V.1. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Garinoaingo Udalaren 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatu Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

V.1.1. Aurrekontuaren likidazioa

Honekin batera doa 2000ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, behar bezala erakusten dituen fiskalizaturiko ekitaldian Udalak egindako eragiketak.

V.1.2. Ondare-egoeraren agerpena

Udal inbentarioa behar bezala garatua ez ego-teak, 2000ko abenduaren 31ko balantze-egoerako kontusailik garrantzitsuena baita, ezinezko egin digu Udalak 2000ko abenduaren 31n duen ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

Gainera, 2000ko ekitaldian zehar, inbertsioen besterentzeak 12.615.000 pezetako dirusarrerak eragin dituzte. Besterentze horiek ez dira islatu inbertsioak besterentzeak eragindako etekin edo galera gisa, eta inbentarioa ere ez dute ekitaldi osoan aldarazi.

V.1.3. Legezketasuna

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz gauzatu da, nahiz eta aurrekontu alorreko hainbat ez-betetze antzeman diren; bereziki, hauek:

– Aurrekontua onesteko epeak ez dira bete.

– Aurrekontu-aldaketei buruz legez ezarritako tramiteak ez dira bete; hain zuzen ere, aldaketei buruzko informazioari eta horiek jendaurrean jarzeari buruzko tramiteak.

– Aurrekontuko zenbait gastu-multzoren mugak ez dira errespetatu.

V.1.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa

Garinoaingo Udalak finantza-egoera garbia du 2000ko abenduaren 31n, ia zorrik gabea; aurrezki garbiak 7,8 milioi pezeta egiten du ekitaldia ixtean. Diruzaintza-gerakina 39,8 milioikoa da.

Laburtuz, eta ondorio nagusi gisa, esan genezake:

- Garinoaingo Udalak modu egokian kudeatzen dituela aurrekontuak, administrazio-ikuspegi batetik begiraturik. Hala ere, honako hau du beharrezko:

a) Aurrekontuak egiteko teknikak hobetu behar ditu, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko, batez ere inbertsio errealean eta kapital-transferentzien alorrekoak.

b) Gastu-obligazio bat aitortu edo indarreko legeriaren arabera aurrekontu-aldaketak egin baino lehen, aurrekontu-kreditu nahikoa dagoela egiaztatzen beharrezkoak diren prozedurak ezarri behar ditu.

c) Informazio-prozesuak abiarazi behar ditu jasotako dirulaguntzen bidez finantzatzen diren gastu eta inbertsioen jarraipena egiteko.

d) Gastu guztietarako, horien zenbatekoa gorabehera, behar den egiaztatzea eskatu behar du.

e) Organo eskudunak onetsi behar ditu tributukontzeptuen erroldak eta karga-tasak; horretaz gain, egin beharrek argitalpen-iragarkiak egin behar dira kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta erreargua ezarriko dira.

f) Inbertsioak besterentzearen ondoriozko eskubide-likidazioak hemen behar dute isla:

– Udal inbentarioan: bertan zuten balioaren baja erregistratu behar da.

– Eraitza ekonomikoaren egoeran; izan ere, hor islatu behar dira, besterentzean izaniko salmenta-neurriaren eta inbentarioko balioaren arteko aldea dela eta, inbertsioak saltzeak eragindako ez-ohiko etekin edo irabaziak.

g) Udal inbentarioa elementuak banaka kontuan hartuz garatu behar du, eta balantze-inbentarioren egoeraren ibilgetuarekin batu.

h) Aurrekontuaren likidazioko kobrantza eta ordainketak benetan zer ekitaldian izaten diren, ekitaldi horretan erregistratu behar ditu.

- Finantzen ikuspuntutik, Udalak oso egoera garbia du, ia zorrik ez baitu, eta diruzaintza-gerakina, aldiz, handia delako.

V.2. FINANTZA-EGOERAK

V.2.1. 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa

DIRUSARRERAK	Aurrekontua		Likidaturiko eskubideak		%
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	Betetzea
1. Zuzeneko zergak	5.246.250	5.246.250	5.324.140	31.998,73	101,48
2. Zeharkako zergak	5.250.000	5.250.000	5.945.845	35.735,25	113,25
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	5.160.920	5.160.920	8.552.774	51.403,21	165,72
4. Transferentzia arruntak	10.274.000	10.274.000	12.042.434	72.376,49	117,21
5. Ondare dirusarrerak	6.585.880	6.585.880	6.539.825	39.305,14	99,30
6. Inbertsio errealak besterentzea	28.500.000	28.500.000	12.615.000	75.817,68	44,26
7. Kapital-transferentziak	20.172.500	20.172.500	7.233.188	43.472,34	35,86
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	6.953.927	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
DIRUSARRERAK, GUZTIRA	81.189.550	88.143.477	58.253.206	350.108,84	66,09

GASTUAK	Aurrekontua		Aitorturiko obligazioak		%
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	Betetzea
1. Langileen ordainsariak	6.286.017	6.286.017	6.126.197	36.819,19	97,46
2. Ondasun arruntak eta zerb. erostea	12.949.947	12.949.947	11.094.855	66.681,42	85,67
3. Korrituak	580.000	580.000	477.907	2.872,28	82,40
4. Transferentzia arruntak	3.592.080	10.546.007	11.577.019	69.579,29	109,78
6. Inbertsio errealak	56.531.506	56.531.506	16.173.982	97.207,59	28,61
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0,00	
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	1.250.000	1.250.000	1.345.449	8.086,31	107,64
GASTUAK, GUZTIRA	81.189.550	88.143.477	46.795.409	281.246,08	53,09

ALDEAK	0	0	11.457.797	68.862,76	
---------------	----------	----------	-------------------	------------------	--

V.2.2. Balantze-inbentarioaren egoera

AKTIBOA		PASIBOA	
Deskribapena	Ekitaldia ixtean	Deskribapena	Ekitaldia ixtean
Ibilgetua	242.589.284	Funts berekiak	274.823.740
1 Ibilgetu materiala	167.831.192 1	1 Ondarea eta erreserbak	265.694.700
2 Ibilgetu ez-materiala	947.649 2	2 Emandako ondasun eta eskubideak	0
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	0 3	3 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	9.129.040
4 Herri-ondasunak	73.810.443	Epe luzeko zorrak	8.611.967
5 Ibilgetu finantzarioa	0	4 Jasotako jesapen, mailegu, fidantza eta gordailu	8.611.967
6 Lagapen edo adskripzio bidez jasotako ondasun eta eskubideak	0 4	Epe laburreko zorrak	6.017.610
Zirkulatzaila	46.864.033	5 Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	1.366.395
7 Zordunak eta itxitako aurrekontuak eta aurrekontuz kanpokoak	6.259.017 5	6 Aurrekontuko hartzekodunak	4.651.215
8 Aurrekontuko zordunak	22.004.668 6		
9 Finantza-kontuak	18.564.348		
Aktiboa, guztira	289.453.317	Pasiboa, guztira	289.453.317

V.2.3. Emaitza ekonomikoaren egoera

ZOR		HARTZEKOAK	
Deskribapena	Ekitaldia ixtean	Deskribapena	Ekitaldia ixtean
61 Langile gastuak	6.126.197	70 Salmentak	8.552.774
62 Finantza-gastuak	477.907	71 Jabetzaren eta enpresaren errenta	6.539.825
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	11.094.855	72 Ekoizpenari eta inportazioari lotutako tributuak	9.710.291
67 Transferentzia arruntak	11.577.019	73 Errenta eta ondarearen gaineko tributuak	1.559.694
68 Kapital-transferentziak	0	76 Transferentzia arruntak	12.042.434
69 Kalkulatutako gastuak	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	0
D80 Ekitaldiko emaitza negatiboa	0	78 Bestelako dirusarrerak	0
D82 Inbertsioak saltzeak eragindako galerak eta bestelako ez-ohiko galerak	0	H80 Ekitaldiko emaitza positiboa	9.129.040
D83 Finantza-aktiboak saltzeak eragindako galerak	0	H82 Inberts. saltzeak eragin. irabaziak	0
D84 Itxitako aurrekontuetako baja eta deuseztatzeak	0	H83 Finantza-aktiboak saltzeak eragindako irabaziak	0
		H84 Itxitako aurrekontuetako alta eta preskripzioak	0
D89 Ekitaldiko emaitza ekonomiko negatiboa	0	H89 Resultado económico positivo del ejercicio	9.129.040

Francisco Javier Sesma Masa auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2002ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

VI. LEOZKO UDALA

VI.1. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Leozko Udalaren 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

VI.1.1. Aurrekontuaren likidazioa

Honekin batera doa 2000ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, behar bezala erakusten dituen fiskalizaturiko ekitaldian Udalak egindako eragiketak. Salbuespen bakarra oker eginiko zenbait aurrekontu-egozpen dira, baina ez dute eraginik aurrekontuaren betetzean, hori osoki hartzen badugu.

VI.1.2. Ondare-egoeraren agerpena

Udal inbentarioa behar bezala garatua ez ego-teak, 2000ko abenduaren 31ko balantze-egoerako kontusailik garrantzitsuena baita, ezinezko egin digu Udalak 2000ko abenduaren 31n duen ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

Udalaren balantzean hurrengo kontabilitate-gorabeherak ere antzeman dira:

– Finantza-aktiboek aldaketak izan dituzte, hala nola Artariaingo Kontzejuari, ekitaldian, gas-tuetarako emaniko 5 milioi pezeta. Ekitaldi amaieran, diru hori itzuli gabe zegoen, eta Udalaren finantza-aktibo gisa agertu behar luke.

– Orbalan, SL udal enpresak kontu korrante hartzekoduna du Leozko Udalarekin; 2000ko ekitaldia ixtean, 4.106.959 pezetako saldoa zuen, eta hori ez zen agertzen finantza-aktibo gisa edo bes-telako zordun gisa Udalaren balantzean.

– Orbalan SL enpresan Udalak duen partaide-tza dela eta, finantza-ibilgetuan ez da inongo zen-batekorik jaso; enpresaren kapital soziala 998.316 pezetakoa da (6.000 euro).

VI.1.3. Legezketasuna

Oro har, Udalaren jardura ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz gauzatu da, nahiz eta aurrekontu alorreko hainbat ez-bete-tze antzeman diren; bereziki, hauek:

– Aurrekontua onesteko eta likidatzeko epeak ez dira bete.

– Aurrekontuko zenbait kapitulu eta kontusailetako gastuen mugak ez dira errespetatu.

– Gastu eta dirusarreretako kontabilitate-agirietan idazkari kontu-hartzailearen sinadurak falta dira.

VI.1.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa

Leozko Udalak finantza-egoera garbia du 2000ko abenduaren 31n, ia zorrik gabea; aurrezki garbiak 36,6 milioi pezeta egiten du ekitaldia ixtean. Diruzaintza-gerakina 48,3 milioikoa da.

Laburtuz, eta ondorio nagusi gisa, esan gene-zake:

- Leozko Udalak modu egokian kudeatzen dituela aurrekontuak, administrazio-ikuspegi bate-tik begiraturik. Hala ere, honako hau du beharrez-ko:

a) Aurrekontuak egiteko teknikak hobetu behar ditu, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak bene-tan bete ahal izateko, batez ere inbertsio errealen eta kapital-transferentzien alorrekoak.

b) Gastu-obligazio bat aitortu edo indarreko legeriaren arabera aurrekontu-aldaketak egin baino lehen, aurrekontu-kreditu nahikoa dagoela egiaztatzeko beharrezkoak diren prozedurak eza-ri behar ditu.

c) Informazio-prozesuak abiarazi behar ditu jasotako dirulaguntzen bidez finantzatzen diren gastu eta inbertsioen jarraipena egiteko.

d) Organo eskudunak onetsi behar ditu tributu-kontzeptuen erroldak eta karga-tasak; horretaz gain, egin beharreko argitalpen-iragarkiak egin behar dira kobratzeko borondatezko epea adie-razteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarrita-ko korrituak eta errekarua ezarriko dira.

e) Udal inbentarioa elementuak banaka kon-tuan hartuz garatu behar du, eta balantze-inbenta-rioren egoeraren ibilgetuarekin batu.

- Finantzen ikuspuntutik, Udalak oso egoera garbia du, ia zorrik ez baitu, eta diruzaintza-gera-kina, aldiz, handia delako.

Azpimarratu beharrean gaude administrazio-
rekiko auzietako epaitegiek azterketa lanaren
ondoren emaniko bi epai.

– Lehenbizikoa Udalaren aholkulari juridikoa-
ren kontratazioari buruzkoa. Epaitegiak errekur-

tsoa baietsi eta deklaratu zuen Udalak bere kabuz
berrikusi behar zuela kontratazio hori.

– Bigarrena, Udaleko idazkariaren kontratazio-
ari buruzkoa. Epaitegiak, orobat, errekurtsioa bai-
etsi eta sinatutako kontratua erabat deusez dekla-
ratu zuen.

VI.2. FINANTZA-EGOERAK

VI.2.1. 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa

DIRUSARRERAK	Aurrekontua		Likidaturiko eskubideak		% Betetzea
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	
1. Zuzeneko zergak	25.150.000	25.150.000	26.973.527	162.114,16	107,25
2. Zeharkako zergak	6.000.000	6.000.000	21.882.740	131.517,92	364,71
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	1.117.000	1.117.000	1.342.842	8.070,64	120,22
4. Transferentzia arruntak	11.100.000	11.100.000	9.641.956	57.949,32	86,86
5. Ondare dirusarrerak	12.015.000	12.015.000	11.278.469	67.784,96	93,87
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	0	0	0,00	
7. Kapital-transferentziak	27.000.000	27.000.000	35.419.640	212.876,32	131,18
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	31.931.401	31.931.401	0	0,00	0,00
DIRUSARRERAK, GUZTIRA	114.313.401	114.313.401	106.539.174	640.313,32	93,20

GASTUAK	Aurrekontua		Aitorturiko obligazioak		% Betetzea
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	
1. Langileen ordainsariak	21.497.401	21.497.401	19.657.800	118.145,76	91,44
2. Ondasun arruntak eta zerb. erostea	15.875.000	15.875.000	9.164.051	55.077,06	57,73
3. Korrituak	1.325.000	1.325.000	270.359	1.624,89	20,40
4. Transferentzia arruntak	9.216.000	9.216.000	5.379.058	32.328,79	58,37
6. Inbertsio errealak	59.400.000	59.400.000	39.775.935	239.058,18	66,96
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0,00	
8. Finantza-aktiboen aldaketa	4.500.000	4.500.000	7.000.000	42.070,85	155,56
9. Finantza-pasiboen aldaketa	2.500.000	2.500.000	2.500.000	15.025,30	100,00
GASTUAK, GUZTIRA	114.313.401	114.313.401	83.747.203	503.330,83	73,26

ALDEAK	0	22.791.971	136.982,49
---------------	----------	-------------------	-------------------

VI.2.2. Balantze-inbentarioaren egoera

AKTIBOA		PASIBOA	
Deskribapena	Ekitaldia ixtean	Deskribapena	Ekitaldia ixtean
Ibilgetua	198.141.971	Funts berekiak	224.126.705
1 Ibilgetu materiala	100.612.594	1 Ondarea eta erreserbak	187.478.439
2 Ibilgetu ez-materiala	5.076.896	2 Emandako ondasun eta eskubideak	0
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	0	3 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	36.648.266
4 Herri-ondasunak	92.452.481	Epe luzeko zorrak	20.000.000
5 Ibilgetu finantzarioa	0	4 Jasotako jesapen, mailegu, fidantza eta gordailu	20.000.000
6 Lagapen edo adskripzio bidez jasotako ondasun eta eskubideak	0	Epe laburreko zorrak	11.939.173
Zirkulatzaila	57.923.907	5 Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	5.845.855
7 Zordunak eta itxitako aurrekontuak eta aurrekontuz kanpokoak	6.446.308	6 Aurrekontuko hartzekodunak	6.093.318
8 Aurrekontuko zordunak	42.350.725		
9 Finantza-kontuak	12.126.874		
Aktiboa, guztira	256.065.878	Pasiboa, guztira	256.065.878

VI.2.3. Emaitza ekonomikoaren egoera

ZOR		HARTZEKOAK	
Deskribapena	Ekitaldia ixtean	Deskribapena	Ekitaldia ixtean
61 Langile gastuak	19.657.800	70 Salmentak	1.342.842
62 Finantza-gastuak	270.359	71 Jabetzaren eta enpresaren errenta	11.278.469
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	9.164.051	72 Ekoizpenari eta inportazioari lotutako tributuak	46.564.701
67 Transferentzia arruntak	5.379.058	73 Errenta eta ondarearen gaineko tributuak	2.291.566
68 Kapital-transferentziak	0	76 Transferentzia arruntak	9.641.956
69 Kalkulatutako gastuak	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	0
D80 Ekitaldiko emaitza negatiboa	0	78 Bestelako dirusarrerak	0
D82 Inbertsioak saltzeak eragindako galerak eta bestelako ez-ohiko galerak	0	H80 Ekitaldiko emaitza positiboa	36.648.266
D83 Finantza-aktiboak saltzeak eragindako galderak	0	H82 Inberts. saltzeak eragin. irabaziak	0
D84 Itxitako aurrekontuetako baja eta deuseztatzeak	0	H83 Finantza-aktiboak saltzeak eragindako irabaziak	0
		H84 Itxitako aurrekontuetako alta eta preskripzioak	0
D89 Ekitaldiko emaitza ekonomiko negatiboa	0	H89 Ekitaldiko emaitza ekonomiko positiboa	36.648.266

VI.3. ORBALAN, SL ENPRESAREN FINANTZA-EGOERAK

VI.3.1. Egoera-balantzea, 2000ko abenduaren 31n

AKTIBOA		PASIBOA	
B) IBILGETUA	2.359.352	A) FUNTS BEREKIAK	341.321
I. Establezimendu gastuak	167.392	I. Kapital harpidetua	998.316
II. Ibilgetu ez-materialak	32.111	V. Aurreko ekitaldietako emaitza neg.	-1.973.724
III. Ibilgetu materialak	2.159.849	VI. Galdu-irabaziak	1.316.729
D) AKTIBO ZIRKULATZAILEA	10.673.686	D) EPE MOTZEKO HARTZEKOD.	12.691.717
III. Izakinak	4.122.552		
IV. Zordunak	5.685.058		
VII. Altxortegia	866.076		
Aktiboa, guztira	13.033.038	Pasiboa, guztira	13.033.038

VI.3.2. 2000ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko galdu-irabazien kontua

ZOR		HARTZEKOAK	
A) GASTUAK	28.620.900	B) DIRUSARRERAK	29.937.629
1. Ustiapeneko kontsumoak	3.146.097	1. Ustiapeneko dirusarrerak	29.936.123
2. Langile gastuak	22.494.522		
3. Amortizatzeko diru-kopuruak	610.026		
5. Ustiapeneko beste gastu batzuk	2.308.727	B.I. Ustiapeneko galerak	0
A.I. Ustiapeneko etekinak	1.376.751	2. Finantza-dirusarrerak	1.506
6. Finantza-gastuak eta antzekoak	11.528	B.II. Finantza-emaitza negatiboak	10.022
A.II. Finantza-emaitza positiboak	0	B.IV. Ez-ohiko emaitzak, negatiboak	50.000
A.III. Jarduera arruntetako mozkinak	1.366.729		
12. Ez-ohiko gastuak	50.000		
A.V. Zerga aurreko mozkinak	1.316.729		
A.VI. Ekitaldiko mozkinak	1.316.729		

Francisco Javier Sesma Masa auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2002ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

VII. OLORIZKO UDALA

VII.1. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Olorizko Udalaren 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatze Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

VII.1.1. Aurrekontuaren likidazioa

Honekin batera doa 2000ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, behar bezala erakusten dituen fiskalizaturiko ekitaldian Udalak egindako eragiketak.

VII.1.2. Ondare-egoeraren agerpena

Udal inbentarioa behar bezala garatua ez egoteak, 2000ko abenduaren 31ko balantze-egoerako kontusailik garrantzitsuena baita, ezinezko egin digu Udalak 2000ko abenduaren 31n duen ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

VII.1.3. Legezketasuna

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz gauzatu da, nahiz eta aurrekontua onestean ez diren bete zenbait epe.

VII.1.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa

Olorizko Udalak finantza-egoera garbia du 2000ko abenduaren 31n, batere zorrik gabea; aurrezki garbiak 21,0 milioi pezeta egiten du eki-

taldia ixtean. Diruzaintza-gerakina 27,9 milioikoa da.

Laburtuz, eta ondorio nagusi gisa, esan genezake:

- Oloriz Udalak modu egokian kudeatzen dituela aurrekontuak, administrazio-ikuspegi batetik begiratzuz. Hala ere, honako hau du beharrezko:

a) Aurrekontuak egiteko teknikak hobetu behar ditu, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko, batez ere inbertsio errealen eta kapital-transferentzien alorrekoak.

b) Gastu-obligazio bat aitortu edo indarreko legeriaren arabera aurrekontu-aldaketak egin baino lehen, aurrekontu-kreditu nahikoa dagoela egiaztatze beharrezkoak diren prozedurak ezarri behar ditu.

c) Organo eskudunak onetsi behar ditu tributukontzeptuen erroldak eta karga-tasak; horretaz gain, egin beharreko argitalpen-iragarkiak egin behar dira kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta errekarua ezarriko dira.

d) Udal inbentarioa elementuak banaka kontuan hartuz garatu behar du, eta balantze-inbentarioaren egoeraren ibilgetuarekin batu.

- Finantzen ikuspuntutik, Udalak oso egoera garbia du, zorrik batere ez baitu, eta diruzaintza-gerakina, aldiz, handia delako.

VII.2. FINANTZA-EGOERAK

VII.2.1. 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa

DIRUSARRERAK	Aurrekontua		Likidaturiko eskubideak		% Betetzea
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	
1. Zuzeneko zergak	14.329.309	14.329.309	13.107.848	78.779,75	91,48
2. Zeharkako zergak	750.000	750.000	2.234.015	13.426,70	297,87
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	225.000	225.000	5.184.393	31.158,83	2.304,17
4. Transferentzia arruntak	3.762.514	3.762.514	3.886.459	23.358,09	103,29
5. Ondare dirusarrerak	460.588	460.588	497.276	2.988,69	107,97
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	0	0	0,00	
7. Kapital-transferentziak	2.128.769	2.128.769	248.000	1.490,51	11,65
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	6.941.104	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
DIRUSARRERAK, GUZTIRA	21.656.180	28.597.284	25.157.991	151.202,57	87,97

GASTUAK	Aurrekontua		Aitorturiko obligazioak		%
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	Betetzea
1. Langileen ordainsariak	581.580	581.580	694.940	4.176,67	119,49
2. Ondasun arruntak eta zerb. erostea	1.535.000	1.535.000	1.343.076	8.072,05	87,50
3. Korrituak	0	0	0	0,00	
4. Transferentzia arruntak	2.015.583	2.015.583	1.827.093	10.981,05	90,65
6. Inbertsio errealak	5.524.017	12.365.121	1.546.634	9.295,46	12,51
7. Kapital-transferentziak	12.000.000	12.100.000	12.100.000	72.722,46	100,00
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
GASTUAK, GUZTIRA	21.656.180	28.597.284	17.511.743	105.247,69	61,24

ALDEAK	0	0	7.646.248	45.954,88
---------------	----------	----------	------------------	------------------

VII.2.2. Balantze-inbentarioaren egoera

AKTIBOA		PASIBOA	
Deskribapena	Ekitaldia ixtean	Deskribapena	Ekitaldia ixtean
Ibilgetua	16.222.434	Funts berekiak	44.414.244
1 Ibilgetu materiala	12.940.767	1 Ondarea eta erreserbak	35.574.135
2 Ibilgetu ez-materiala	200.000	2 Emandako ondasun eta eskubideak	0
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	0	3 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	8.840.109
4 Herri-ondasunak	3.081.667	Epe luzeko zorrak	668.952
5 Ibilgetu finantzarioa	0	4 Jasotako jesapen, mailegu, fidantza eta gordailu	668.952
6 Lagapen edo adskripzio bidez jasotako ondasun eta eskubideak	0	Epe laburreko zorrak	232.769
Zirkulatuzailea	29.093.531	5 Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	82.383
7 Zordunak eta itxitako aurrekontuak eta aurrekontuz kanpokoak	362.871	6 Aurrekontuko hartzekodunak	150.386
8 Aurrekontuko zordunak	764.796		
9 Finantza-kontuak	27.965.864		
Aktiboa, guztira	45.315.965	Pasiboa, guztira	45.315.965

VII.2.3. Emaitza ekonomikoaren egoera

ZOR		HARTZEKOAK	
Deskribapena	Ekitaldia ixtean	Deskribapena	Ekitaldia ixtean
61 Langile gastuak	694.940	70 Salmentak	5.184.393
62 Finantza-gastuak	0	71 Jabetzaren eta enpresaren errenta	497.276
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	1.343.076	72 Ekoizpenari eta inportazioari lotutako tributuak	14.182.409
67 Transferentzia arruntak	1.827.093	73 Errenta eta ondarearen gaineko tributuak	1.085.971
68 Kapital-transferentziak	12.100.000	76 Transferentzia arruntak	3.886.459
69 Kalkulatutako gastuak	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	73.483
		78 Bestelako dirusarrerak	0
D80 Ekitaldiko emaitza negatiboa	0	H80 Ekitaldiko emaitza positiboa	8.944.882
D82 Inbertsioak saltzeak eragindako galerak eta bestelako ez-ohiko galerak	0	H82 Inberts. saltzeak eragin. irabaziak	0
D83 Finantza-aktiboak saltzeak eragindako galderak	0	H83 Finantza-aktiboak saltzeak eragindako irabaziak	0
D84 Itxitako aurrekontuetako baja eta deuseztatzeak	104.773	H84 Itxitako aurrekontuetako alta eta preskripzioak	0
D89 Ekitaldiko emaitza ekonomiko negatiboa	0	H89 Ekitaldiko emaitza ekonomiko positiboa	8.840.109

Francisco Javier Sesma Masa auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2002ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

VIII. ORISOAINGO UDALA**VIII.1. IRITZIA**

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Orisoaingo Udalaren 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeke Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

VIII.1.1. Aurrekontuaren likidazioa

Honekin batera doa 2000ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, behar bezala erakusten dituena fiskalizaturiko ekitaldian Udalak egindako eragiketak.

VIII.1.2. Ondare-egoeraren agerpena

Udal inbentarioa behar bezala garatua ez egoteak, 2000ko abenduaren 31ko balantze-egoerako kontusailik garrantzitsuen baita, ezinezko egin digu Udalak 2000ko abenduaren 31n duen ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

VIII.1.3. Legezketasuna

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz gauzatu da, nahiz eta aurrekontua onestean ez diren bete zenbait epe.

VIII.1.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa

Orisoaingo Udalak finantza-egoera garbia du 2000ko abenduaren 31n, batere zorrik gabea; aurrezki garbiak 3,1 milioi pezeta egiten du ekitaldia ixtean. Diruzaintza-gerakina 4,1 milioikoa da.

Laburtuz, eta ondorio nagusi gisa, esan genezake:

- Orisoaingo Udalak modu egokian kudeatzen dituela aurrekontuak, administrazio-ikuspegi batekik begiratuz. Hala ere, honako hau du beharrezko:

a) Gastu-obligazio bat aitortu edo indarreko legeriaren arabera aurrekontu-aldaketak egin baino lehen, aurrekontu-kreditu nahikoa dagoela egiaztatzeko beharrezkoak diren prozedurak ezarri behar ditu.

b) Informazio-prozesuak abiarazi behar ditu jasotako dirulaguntzen bidez finantzatzen diren gastu eta inbertsioen jarraipena egiteko.

c) Organo eskudunak onetsi behar ditu tributukontzeptuen erroldak eta karga-tasak; horretaz gain, egin beharreko argitalpen-iragarkiak egin behar dira kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta errekarua ezarriko dira.

d) Udal inbentarioa elementuak banaka kontuan hartuz garatu behar du, eta balantze-inbentarioaren egoeraren ibilgetuarekin batu.

e) Aurrekontuaren likidazioko kobrantza eta ordainketak benetan zer ekitalditan izaten diren, ekitaldi horretan erregistratu behar ditu.

- Finantzen ikuspuntutik, Udalak oso egoera garbia du, zorrik batere ez baitu, eta diruzaintza-gerakina, aldiz, handia delako.

VIII.2. FINANTZA-EGOERAK**VIII.2.1. 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa**

DIRUSARRERAK	Aurrekontua		Likidaturiko eskubideak		% Betetzea
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	
1. Zuzeneko zergak	1.671.000	1.671.000	1.680.455	10.099,74	100,57
2. Zeharkako zergak	200.000	200.000	42.257	253,97	21,13
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	1.865.000	1.865.000	1.431.523	8.603,63	76,76
4. Transferentzia arruntak	2.585.000	2.585.000	2.550.469	15.328,63	98,66
5. Ondare dirusarrerak	989.490	989.490	973.845	5.852,93	98,42
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	0	0	0,00	
7. Kapital-transferentziak	940.000	940.000	1.323.538	7.954,62	140,80
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
DIRUSARRERAK, GUZTIRA	8.250.490	8.250.490	8.002.087	48.093,52	96,99

GASTUAK	Aurrekontua		Aitorturiko obligazioak		%
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	Betetzea
1. Langileen ordainsariak	1.474.243	1.474.243	1.407.884	8.461,55	95,50
2. Compras B. corr. y sv's.	1.514.802	1.514.802	965.831	5.804,76	63,76
3. Korrituak	0	0	0	0,00	
4. Transferentzia arruntak	1.875.000	1.875.000	1.222.162	7.345,34	65,18
6. Inbertsio errealak	3.386.445	3.386.445	3.519.894	21.154,99	103,94
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0,00	
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
GASTUAK, GUZTIRA	8.250.490	8.250.490	7.115.771	42.766,64	86,25

ALDEAK	0	0	886.316	5.326,88
---------------	----------	----------	----------------	-----------------

VIII.2.2. Balantze-inbentarioaren egoera

AKTIBOA		PASIBOA	
Deskribapena	Ekitaldia ixtean	Deskribapena	Ekitaldia ixtean
Ibilgetua	41.071.068	Funts berekiak	45.197.509
1 Ibilgetu materiala	31.118.687	1 Ondarea eta erreserbak	42.114.837
2 Ibilgetu ez-materiala	1.181.346	2 Emandako ondasun eta eskubideak	0
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	0	3 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	3.082.672
4 Herri-ondasunak	8.771.035	Epe luzeko zorrak	0
5 Ibilgetu finantzarioa	0	4 Jasotako jesapen, mailegu, fidantza eta gordailu	0
6 Lagapen edo adskripzio bidez jasotako ondasun eta eskubideak	0	Epe laburreko zorrak	1.999.476
Zirkulatzaila	6.125.917	5 Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	160.131
7 Zordunak eta itxitako aurrekontuak eta aurrekontuz kanpokoak	199.322	6 Aurrekontuko hartzekodunak	1.839.345
8 Aurrekontuko zordunak	803.552		
9 Finantza-kontuak	5.123.043		
Aktiboa, guztira	47.196.985	Pasiboa, guztira	47.196.985

VIII.2.3. Eraitza ekonomikoaren egoera

ZOR		HARTZEKOAK	
Deskribapena	Ekitaldia ixtean	Deskribapena	Ekitaldia ixtean
61 Langile gastuak	1.407.884	70 Salmentak	1.431.523
62 Finantza-gastuak	0	71 Jabetzaren eta enpresaren errenta	973.845
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	965.831	72 Ekoizpenari eta inportazioari lotutako tributuak	1.358.308
67 Transferentzia arruntak	1.222.162	73 Errenta eta ondarearen gaineko tributuak	364.404
68 Kapital-transferentziak	0	76 Transferentzia arruntak	2.550.469
69 Kalkulatutako gastuak	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	0
		78 Bestelako dirusarrerak	0
D80 Ekitaldiko eraitza negatiboa	0	H80 Ekitaldiko eraitza positiboa	3.082.672
D82 Inbertsioak saltzeak eragindako galerak eta bestelako ez-ohiko galerak	0	H82 Inberts. saltzeak eragin. irabaziak	0
D83 Pérdida en ventas de aktiboak eragindako irabaziak	0	H83 Finantza-aktiboak saltzeak eragindako irabaziak	0
D84 Itxitako aurrekontuetako baja eta deuseztatzeak	0	H84 Itxitako aurrekontuetako alta eta preskripzioak	0
D89 Ekitaldiko eraitza ekonomiko negatiboa	0	H89 Ekitaldiko eraitza ekonomiko positiboa	3.082.672

Francisco Javier Sesma Masa auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2002ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

IX. PUIUKO UDALA**IX.1. IRITZIA**

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Puiuko Udalaren 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeke Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

IX.1.1. Aurrekontuaren likidazioa

Honekin batera doa 2000ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, behar bezala erakusten dituen fiskalizaturiko ekitaldian Udalak egindako eragiketak.

IX.1.2. Ondare-egoeraren agerpena

Udal inbentarioa behar bezala garatua ez egoiteak, 2000ko abenduaren 31ko balantze-egoerako kontusailik garrantzitsuena baita, ezinezko egin digu Udalak 2000ko abenduaren 31n duen ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

IX.1.3. Legezatasuna

Oro har, Udalaren jardura ekonomiko-finantzarioa legezatasun-printzipioari jarraituz gauzatu da, nahiz eta aurrekontua onestean ez diren bete zenbait epe.

IX.1.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa

Puiuko Udalaren finantza-egoerak, 2000ko abenduaren 31n, zorpetze maila ertaina du ezau-garri; aurrezki garbiak 7,5 milioi pezeta egiten du ekitaldia ixtean. Diruzaintza-gerakina 8,2 milioikoa da.

Aipatzekoa da, nahitaez, 2000ko ekitaldian izaniko aurrekontu-defizita, 11,6 milioi hain zuzen; horrek Udalaren finantzek okerrera egitea ekarri du. Defizit hori, bereziki, inbertsioen kapituluaren sortu da. Epigrafe horretako kontusailik garrantzitsuenak kapital transferentzien bidez finantzatzen dira (jasotako dirulaguntzak eta urbanizazio koutak), eta, beraz, defizita, neurri batean, dirusarrera horiek momentu jakin batean egotzi beharrak eragiten du.

Laburtuz, eta ondorio nagusi gisa, esan genezake

- Puiuko Udalak modu egokian kudeatzen dituela aurrekontuak, administrazio-ikuspegi batek begiratu. Hala ere, honako hau du beharrezko:

a) Informazio-prozesuak abiarazi behar ditu jasotako dirulaguntzen bidez finantzatzen diren gastu eta inbertsioen jarraipena egiteko.

b) Gastu guztietarako, horien zenbatekoa gorabehera, behar den egiaztagiria eskatu behar du.

c) Organo eskudunak onetsi behar ditu tributu-kontzeptuen erroldak eta karga-tasak; horretaz gain, egin beharreko argitalpen-iragarkiak egin behar dira kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta errekarua ezarriko dira.

d) Inbertsioak besterentzearen ondoriozko eskubide-likidazioak hemen behar dute isla:

– Udal inbentarioan: bertan zuten balioaren baja erregistratu behar da.

– Emaizta ekonomikoaren egoeran; izan ere, hor islatu behar dira, besterentzean izaniko salmenta-neurriaren eta inbentarioko balioaren arteko aldea dela eta, inbertsioak saltzeak eragindako ez-ohiko etekin edo irabaziak.

e) Udal inbentaria elementuak banaka kontuan hartuz garatu behar du, eta balantze-inbentarioren egoeraren ibilgetuarekin batu.

- Finantzen ikuspuntutik, Udalak egoera onargarria du, zorpetze ertaina baitu, eta diruzaintza-gerakina nahikoa baita.

IX.2. FINANTZA-EGOERAK**IX.2.1. 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa**

DIRUSARRERAK	Aurrekontua		Likidaturiko eskubideak		%
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	
1. Zuzeneko zergak	9.837.999	9.837.999	9.270.243	55.715,28	94,23
2. Zeharkako zergak	1.500.000	1.500.000	1.097.437	6.595,73	73,16
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	1.907.920	1.907.920	2.091.094	12.567,73	109,60
4. Transferentzia arruntak	10.355.819	10.355.819	10.846.485	65.188,69	104,74
5. Ondare dirusarrerak	6.226.492	6.226.492	5.901.230	35.467,11	94,78
6. Inbertsio errealak besterentzea	660.000	660.000	397.178	2.387,09	60,18
7. Kapital-transferentziak	20.162.999	20.162.999	15.921.922	95.692,68	78,97
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	14.513.987	14.513.987	0	0,00	
DIRUSARRERAK, GUZTIRA	65.165.216	65.165.216	45.525.589	273.614,31	69,86

GASTUAK	Aurrekontua		Aitorturiko obligazioak		%
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	
1.- Langileen ordainsariak	11.406.531	11.406.531	11.257.622	67.659,67	98,69
2.- Ondasun arruntak eta zerb. erostea	11.048.912	11.048.912	8.517.232	51.189,60	77,09
3.- Korrituak	1.322.280	1.322.280	647.873	3.893,80	49,00
4.- Transferentzia arruntak	2.125.369	2.125.369	1.292.464	7.767,87	60,81
6.- Inbertsio errealak	37.658.252	37.658.252	33.853.390	203.462,97	89,90
7.- Kapital-transferentziak	0	0	0	0,00	
8.- Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9.- Finantza-pasiboen aldaketa	1.603.872	1.603.872	1.603.872	9.639,46	100,00
GASTUAK, GUZTIRA	65.165.216	65.165.216	57.172.453	343.613,37	87,73

ALDEAK	0	0	-11.646.864	-69.999,06
--------	---	---	-------------	------------

IX.2.2. Balantze-inbentarioaren egoera

AKTIBOA		PASIBOA	
Deskribapena	Ekitaldia ixtean	Deskribapena	Ekitaldia ixtean
Ibilgetua	263.999.972	Funts berekiak	261.326.772
1 Ibilgetu materiala	176.740.999	1 Ondarea eta erreserbak	242.767.929
2 Ibilgetu ez-materiala	3.290.979	2 Emandako ondasun eta eskubideak	0
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	49.452.828	3 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	18.558.843
4 Herri-ondasunak	34.515.166		
5 Ibilgetu finantzarioa	0	Epe luzeko zorrak	12.830.976
6 Lagapen edo adskripzio bidez jasotako ondasun eta eskubideak	0	4 Jasotako jesapen, mailegu, fidantza eta gordailu	12.830.976
Zirkulatzaila	15.251.428	Epe laburreko zorrak	5.093.652
7 Zordunak eta itxitako aurrekontuak eta aurrekontuz kanpokoak	2.030.893	5 Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	508.431
8 Aurrekontuko zordunak	7.214.563	6 Aurrekontuko hartzekodunak	4.585.221
9 Finantza-kontuak	6.005.972		
Aktiboa, guztira	279.251.400	Pasiboa, guztira	279.251.400

IX.2.3. Eraitza ekonomikoaren egoera

ZOR		HARTZEKOAK	
Deskribapena	Ekitaldia ixtean	Deskribapena	Ekitaldia ixtean
61 Langile gastuak	11.257.622	70 Salmentak	2.091.094
62 Finantza-gastuak	647.873	71 Jabetzaren eta enpresaren errenta	5.901.230
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	8.517.232	72 Ekoizpenari eta inportazioari lotutako tributuak	8.733.830
67 Transferentzia arruntak	1.292.464	73 Errenta eta ondarearen gaineko tributuak	1.633.850
68 Kapital-transferentziak	0	76 Transferentzia arruntak	10.846.485
69 Kalkulatutako gastuak	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	0
D80 Ekitaldiko eraitza negatiboa	0	78 Bestelako dirusarrerak	3.598.583
D82 Inbertsioak saltzeak eragindako galerak eta bestelako ez-ohiko galerak	0	H80 Ekitaldiko eraitza positiboa	11.089.881
D83 Finantza-aktiboak saltzeak eragindako galerak	0	H82 Inberts. saltzeak eragin. irabaziak	0
D84 Itxitako aurrekontuetako baja eta deuseztatzeak	994.318	H83 Finantza-aktiboak saltzeak eragindako irabaziak	0
D89 Ekitaldiko eraitza negatiboa	0	H84 Itxitako aurrekontuetako alta eta preskripzioak	8.463.280
		H89 Ekitaldiko eraitza ekonomiko positiboa	18.558.843

Francisco Javier Sesma Masa auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2002ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

X. UNTZUEKO UDALA**X.1. IRITZIA**

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Untzueko Udalaren 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Berrikuspina egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

X.1.1. Aurrekontuaren likidazioa

Honekin batera doa 2000ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, behar bezala erakusten dituena fiskalizaturiko ekitaldian Udalak egindako eragiketak.

X.1.2. Ondare-egoeraren agerpena

Udal inbentarioa behar bezala garatua ez egoteak, 2000ko abenduaren 31ko balantze-egoerako kontusailik garrantzitsua baita, ezinezko egin digu Udalak 2000ko abenduaren 31n duen ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

X.1.3. Legezotasuna

Oro har, Udalaren jardura ekonomiko-finantzarioa legezotasun-printzipioari jarraituz gauzatu da, nahiz eta aurrekontu alorreko hainbat ez-betetzeko antzeman diren; bereziki, hauek:

– Aurrekontua onesteko eta likidatzeko epeak ez dira bete.

– Aurrekontu-aldaketak onesteko prozesuetan, arau-haustekak izan dira.

X.1.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa

Untzueko Udalak finantza-egoera garbia du 2000ko abenduaren 31n, zor handirik gabea; aurrezki garbiak 16,3 milioi pezeta egiten du ekitaldia ixtean. Diruzaintza-gerakina 47,9 milioikoa da.

Laburtuz, eta ondorio nagusi gisa, esan genezake

- Untzueko Udalak modu egokian kudeatzen dituela aurrekontuak, administrazio-ikuspegi batek begiraturik. Hala ere, honako hau du beharrezko:

a) Aurrekontu-aldaketak legedian ezarritakoaren arabera onesteko beharrezkoak diren prozedurak ezarri behar ditu.

b) Informazio-prozesuak abiarazi behar ditu jasotako dirulaguntzen bidez finantzatzen diren gastu eta inbertsioen jarraipena egiteko.

c) Organo eskudunak onetsi behar ditu tributukontzeptuen erroldak eta karga-tasak; horretaz gain, egin beharreko argitalpen-iragarkiak egin behar dira kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, lege ezarritako korrituak eta errekarua ezarriko dira.

d) Udal inbentarioa elementuak banaka kontuan hartuz garatu behar du, eta balantze-inbentarioaren egoeraren ibilgetuarekin batu.

e) Aurrekontuaren likidazioko kobrantza eta ordainketak benetan zer ekitalditan izaten diren, ekitaldi horretan erregistratu behar ditu.

- Finantzen ikuspuntutik, Udalak egoera garbia du, zorrek ez baitira oso handiak, eta diruzaintza-gerakina, aldiz, dezentekoa delako.

XI.2. FINANTZA-EGOERAK

X.2.1. 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa

DIRUSARRERAK	Aurrekontua		Likidaturiko eskubideak		%
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	Betetzea
1. Zuzeneko zergak	4.319.200	4.319.200	9.828.714	59.071,76	227,56
2. Zeharkako zergak	200.000	200.000	667.237	4.010,18	333,62
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	886.000	886.000	689.086	4.141,49	77,77
4. Transferentzia arruntak	3.984.000	3.984.000	4.545.339	27.318,04	114,09
5. Ondare dirusarrerak	9.916.000	9.916.000	9.732.072	58.490,93	98,15
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	0	0	0,00	
7. Kapital-transferentziak	5.941.540	5.941.540	2.046.380	12.298,99	34,44
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	4.200.000	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
DIRUSARRERAK, GUZTIRA	25.246.740	29.446.740	27.508.828	165.331,39	93,42

GASTUAK	Aurrekontua		Aitorturiko obligazioak		%
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	
1. Langileen ordainsariak	2.388.425	2.388.425	2.034.173	12.225,63	85,17
2. Ondasun arruntak eta zerb. erostea	4.249.131	4.249.131	3.406.736	20.474,90	80,17
3. Korrituak	800.000	800.000	781.666	4.697,91	97,71
4. Transferentzia arruntak	975.000	3.475.000	2.033.556	12.221,92	58,52
6. Inbertsio errealak	15.934.184	16.634.184	7.871.052	47.305,98	47,32
7. Kapital-transferentziak	0	1.000.000	631.000	3.792,39	63,10
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	900.000	900.000	953.276	5.729,30	105,92
GASTUAK, GUZTIRA	25.246.740	29.446.740	17.711.459	106.448,03	60,15

ALDEAK	0	0	-11.646.864	-69.999,06
---------------	----------	----------	--------------------	-------------------

X.2.2. Balantze-inbentarioaren egoera

AKTIBOA		PASIBOA	
Deskribapena	Ekitaldia ixtean	Deskribapena	Ekitaldia ixtean
Ibilgetua	190.697.854	Funts berekiak	225.580.759
1 Ibilgetu materiala	164.025.627	1 Ibilgetu materiala	164.025.627
2 Ibilgetu ez-materiala	2.099.200	2 Ibilgetu ez-materiala	2.099.200
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	0	3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	0
4 Herri-ondasunak	24.573.027	4 Herri-ondasunak	24.573.027
5 Ibilgetu finantzarioa	0	5 Ibilgetu finantzarioa	0
6 Lagapen edo adskripzio bidez jasotako ondasun eta eskubideak	0	6 Lagapen edo adskripzio bidez jasotako ondasun eta eskubideak	0
Zirkulatzaila	48.901.578	Zirkulatzaila	48.901.578
7 Zordunak eta itxitako aurrekontuak eta aurrekontuz kanpokoak	491.662	7 Zordunak eta itxitako aurrekontuak eta aurrekontuz kanpokoak	491.662
8 Aurrekontuko zordunak	2.333.898	8 Aurrekontuko zordunak	2.333.898
9 Finantza-kontuak	46.076.018	9 Finantza-kontuak	46.076.018
Aktiboa, guztira	239.599.432	Aktiboa, guztira	239.599.432

IX.2.3. Eraitza ekonomikoaren egoera

ZOR		HARTZEKOAK	
Deskribapena	Ekitaldia ixtean	Deskribapena	Ekitaldia ixtean
61 Langile gastuak	2.034.173	70 Salmentak	689.086
62 Finantza-gastuak	781.666	71 Jabetzaren eta enpresaren errenta	9.732.072
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	3.406.736	72 Ekoizpenari eta inportazioari lotutako tributuak	9.568.204
67 Transferentzia arruntak	2.033.556	73 Errenta eta ondarearen gaineko tributuak	927.747
68 Kapital-transferentziak	631.000	76 Transferentzia arruntak	4.545.339
69 Kalkulatutako gastuak	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	0
		78 Bestelako dirusarrerak	0
D80 Ekitaldiko eraitza negatiboa	0	H80 Ekitaldiko eraitza positiboa	16.575.317
D82 Inbertsioak saltzeak eragindako galerak eta bestelako ez-ohiko galerak	0	H82 Inbertsioak saltzeak eragindako irabaziak	0
D83 Finantza-aktiboak saltzeak eragindako galderak	0	H83 Finantza-aktiboak saltzeak eragindako irabaziak	0
D84 Itxitako aurrekontuetako baja eta deuseztatzeak	0	H84 Itxitako aurrekontuetako alta eta preskripzioak	0
D89 Ekitaldiko eraitza ekonomiko negatiboa	0	H89 Ekitaldiko eraitza ekonomiko positiboa	16.575.317

Francisco Javier Sesma Masa auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2002ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Orbaibar aldeko udalen arrazoizkotasun ekonomikoari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 11n eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak eginiko Orbaibar aldeko udalen arrazoizkotasun ekonomikoari buruzko fiskalizazio-txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2002ko martxoaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Orbaibar aldeko udalen arrazoizkotasun ekonomikoari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (26. or.).
- II. Helburua (26. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (26. or.).
- IV. Udalek emandako zerbitzu publikoen azterketa (27. or.).
 - IV.1. Hezkuntza (30. or.).
 - IV.2. Gizarte zerbitzuak (30. or.).
 - IV.3. Hiri hondakin solidoak (30. or.).
 - IV.4. Ur horniketa (31. or.).
 - IV.5. Kirolak (31. or.).
 - IV.6. Kultura (32. or.).
 - IV.7. Mendiak (32. or.).
 - IV.8. Argi-indarraren horniketa (33. or.).
 - IV.9. Egitura (33. or.).
- V. Ondorioak eta gomendioak (36. or.).

I. SARRERA

Orbaibar aldea Nafarroaren erdialdean dago, Iruñetik hegoaldera eta Tafallatik iparraldera, azken herri horren eragin-eremuan. Herri hauek dira Orbaibar aldekoak: Barasoain (518 biztanle), Garinoain (358 biztanle), Leotz (281 biztanle), Oloritz (186 biztanle), Orisoain (102 biztanle), Puiu (332 biztanle) eta Untzue (138 biztanle).

Zazpi udalok ez dute, berez, erakunde administratibo bat osatzen, baina gehienak, Orbaibarren garapenerako elkartearen bidez, elkarrekin lan egiten hasiak dira.

Txosten honekin, Kontuen Ganbarak buru ematen dio Orbaibar aldeko azterketari; izan ere, osatu egiten baitu 2000ko aurrekontuen gaineko fiskalizazio finantzarioaren lana, eta lehenbiziko aldiz ematen du ikuspegi orokor bat alde horretarako toki entitateek garatu dituzten jardueren eta haien arrazoizkotasunari buruz.

II. HELBURUA

Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legeari, Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/90 Foru Legeari, eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, udalek emandako zerbitzu publikoen azterketari ekin diogu.

Lan honek helburu bikoitza du:

a) Orbaibar aldea osatzen duten toki entitate bakoitzak ematen dituen zerbitzu publiko oinarrikoen kostua finkatu, aztertu eta zenbatestea.

b) Aurreko diagnostikoa gogoan, eta kudeaketaren publikoan lehenetsi behar den arrazionaltasunaren printzipioa aintzat hartuta, gomendio eta iradokizun zenbait proposatzea, zerbitzu publikoak kostua eta kalitate-maila egokia uztartuz emateko.

Txosten honek, ostera, ez du ibarreko zerbitzuak ematea berrantolatzeke proposamen zehatzak landu eta taxutzea helburu; izan ere, zerikusia duten entitate eta herritarrei baino ez dagokien erabakia delakoan baikaude.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Barasoain, Garinoain, Leotz, Oloritz, Orisoain, Puiu eta Untzueko udalek ematen dituzten zerbitzuen kudeaketaren arrazoizkotasunari buruzko azterketa jasotzen du ondoren aurkeztuko dugun txosten honek.

Udalek eman eta Orbaibar aldeko herritarrek bere esku dituzten prestazio eta jarduerak jo ditugu zerbitzutzat.

Entitate txikiak direnez, zail da zerbitzuak aztertu eta identifikatzea; hori dela eta, hurrengo oinarriko zerbitzuak aztertu ditugu txosten honetan: hezkuntza, gizarte zerbitzuak, hiri hondakin solidoak, ur horniketa, kirolak, kultura, mendiak, argi-indarraren hornidura eta egitura.

Aurrekontu-kontabilitatetik atera ditugu zerbitzu bakoitzari egotzitako kostuak, eta egitura-banaketa eta amortizazioen kalkulua ez ditugu kontuan izan.

Aztertu ditugun gainerako zerbitzuei ezin egotzizko gastuak jo ditugu egituratzat.

Azterlan hau egiteko, udalek emandako informazioa kualitatiboa erabili dugu —elkarrizketak egin ditugu—, eta, halaber, ohiko gastuei eta diru-sarrerari buruzko informazio kuantitatiboa, kontabilitate-erregistroetatik aterea bereziki. Aipatu beharrekoa da ezen galdeketen bidez zerbitzu publikoei buruz jasotako informazioa gutxi izan dela eta kalitate eskasekoa; izan ere, galdeketak bete behar izan dituzten udal-langileek ez diete behar bezalako erantzun zabalik eman eginiko galderei.

Hurrengoek baldintzatu edo mugatu dute txosten hau:

- Saillapen funtzionalaren garapena kapituluka egiten da, eta horrek zaildu egiten du zerbitzuko kostua ateratzea.
- Entitate bakoitzaren aurrekontuak murriztak dira, eta zail egiten da gastuak zerbitzuei egozte.
- Amortizazioak dira zerbitzuen kostuaren funtsezko zati bat.

Entitateen ibilgetuetan dauden elementuen amortizaziorako zuzkidurarik egiten ez denez, ezin izan zaizkio amortizazio horiek zerbitzu bakoitzari egotzi; ondorioz, zerbitzu bakoitzaren amortizazioak kontuan hartuz gero, kostuen kalkulua nabarmen alda daiteke.

- Langileen dedikazioa kontrolatzeko sistemarik ez dagoenez, ezinezko da entitateotan zerbitzuak ematen dituzten pertsonen egotz dakiekeen denbora era fidagarrian banatzea; ondorioz, egituratzat jo ditugu langileen gastuak, funtsean.

Bi arlo nagusitan egituratu dugu txostena: lehenbizikoan, aztertu ditugun zerbitzuen kostua finkatu eta zenbatetsi dugu; bigarreanean, hainbat ondorio eta gomendio atera dugu.

Azterketa lana 2001eko uztaila, iraila eta urrian egin dugu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu udaletako langile guztiei, beraien lankidetzak gure lana erraztu egin duelako.

IV. UDALEK EMANDAKO ZERBITZU PUBLIKOEN AZTERKETA

Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legearen 29 eta 31. artikuluen arabera, Nafarroako udalerriek eskumen batzuk dituzte, eta zerbitzu batzuk eman behar dituzte; hain zuzen ere, lege-dia orokorrak gutxienez ezarri dituen haiek.

Hartara, Toki araubideko oinarriak arautzen dituen Legeak agintzen duenaren arabera, herritarren beharrak betetzeko behar diren zerbitzuak sustatu eta eman behar ditu udalak. Lege horren 25 eta 26. artikuluetan, hain zuzen ere, ondokoa ezartzen da:

“25. artikulua.

Udalak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumen-esparruan, jarduera-mota guztiak bultzatu ditzake, eta herriaren beharrak eta nahiak betetzen lagun dezakeen zerbitzu publiko oro egin.

Udalaren eskumenak, betiere Estatuko eta autonomia erkidegoetako legeen arabera, honako hauek dira:

- a) Toki publikoetako segurtasuna.
- b) Hiribideetan ibilgailuen eta gizakien ibilera arautzea.
- c) Babes zibila, suteak eragozte eta itzaltzea.
- d) Hirigintzaren antolaketa, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina; etxebizitzak sustatzea eta kudeatzea; parkeak eta lorategiak, hiribideen zoladura eta baserribide eta estartak zaintzea.
- e) Ondare historiko-artistikoa.
- f) Ingurumenaren babesa.
- g) Hornigaiak, hiltegiak, azokak, merkatuak eta bezeroen eta kontsumitzaileen babesa.
- h) Osasungarritasun publikoaren babesa.
- i) Oinarriko osasun-zerbitzuen kudeaketan parte hartzea.
- j) Hilerriak eta hileta zerbitzuak.
- k) Gizarte-zerbitzuak eta sustapenerako zein birgizarteratzeko zerbitzuak betetzea.
- l) Ur-hornidura eta herriko argiak; kaleak garbitzeko, zaborrak bildu eta tratatzeko zerbitzuak, estolderia eta hondakin-urak tratatzeko zerbitzuak.
- m) Gizakientzako garraio publikoa.
- n) Kultura- eta kirol-jarduerak eta kultur etxe eta kiroldegia; astialdia betetzea; turismoa.

o) Irakaskuntzaren programazioan parte hartzea eta ikastetxe publikoak sortu, eraiki eta mantentzeko administrazioarekin elkarlanean aritzea; horien kudeaketa-organoetan esku hartzea eta derrigorrezko eskolatzea betetzeko zaintzan parte hartzea.”

“26. artikulua.

Udalek bakarrean edo elkarturik, honako zerbitzu hauek bete behar dituzte, betiere:

Udal guztietan:

a) Herriko argiak, hilerria, zabor-bilketa, kaleen garbiketa, edateko uraren etxez etxeko hornidura, estolderia, biztanleguneetako sarbideak, herribideen zoladura eta janari-edarien kontrola.”

Orbaibar aldeko udal guztiek ematen dituzte legearen aginduz eman beharreko gutxieneko zerbitzuak; dena den, txosten honetan egituratzat hartu dira horietako batzuk.

Hurrengo laukietan, aztertutako zerbitzuen gastu eta dirusarreraren laburpenak emanen ditugu.

Orbaibarko aldea

2000ko gastu eta dirusarrerak, zerbitzuka banatuta.

Gastuak										
Entitatea	Hezkuntza	Gizarte zerbitzuak	Hiri hondakin solidoak	Ur hornidura	Kirolak	Kultura	Mendiak	Argi-ind. hornidura	Egitura	Guztira
Barasoain	1.271.999	699.291	0	0	234.491	5.284.130	0	0	18.235.342	25.725.253
Garinoain	0	3.550.134	0	0	5.128.677	4.421.664	6.953.926	0	9.221.577	29.275.978
Leotz	0	2.630.280	0	800.241	0	3.547.894	2.389.731	0	25.103.122	34.471.268
Oloritz	0	0	0	0	0	387.389	0	0	3.477.720	3.865.109
Orisoain	0	11.850	0	316.458	0	537.702	0	608.518	2.121.349	3.595.877
Puiu	0	428.591	0	0	1.229.680	2.826.029	371.975	0	16.858.916	21.715.191
Untzue	0	1.019.629	0	0	0	2.444.826	0	0	4.791.676	8.256.131
Guztira	1.271.999	8.339.775	0	1.116.699	6.592.848	19.449.634	9.715.632	608.518	79.809.702	126.904.807
Dirusarrerak										
Entitatea	Hezkuntza	Gizarte zerbitzuak	Hiri hondakin solidoak	Ur hornidura	Kirolak	Kultura	Mendiak	Argi-ind. hornidura	Egitura	Guztira
Barasoain	1.506.534	759.078	0	0	0	1.460.364	4.208.759	0	37.539.609	45.474.344
Garinoain	0	1.061.600	0	0	4.628.677	0	5.181.139	0	27.533.602	38.405.018
Leotz	0	0	0	1.083.262	0	0	4.586.826	0	65.449.446	71.119.534
Oloritz	0	0	0	0	0	0	211.330	0	24.698.661	24.909.991
Orisoain	0	0	0	370.841	0	0	832.566	1.033.882	4.441.260	6.678.549
Puiu	0	394.484	0	0	1.425.900	0	5.552.593	0	21.833.512	29.206.489
Untzue	0	124.322	0	0	0	0	2.359.500	0	22.978.626	25.462.448
Guztira	1.506.534	2.339.484	0	1.454.103	6.054.577	1.460.364	22.932.713	1.033.882	204.474.716	241.256.373

Ondoren, banan-banan ikusiko ditugu aztertu ditugun zerbitzuak.

IV.1. HEZKUNTZA

Toki araubideko oinarriak arautzen dituen Legeak ezartzen du udalek irakaskuntzaren programazioan parte hartuko dutela, bai eta ikastetxe publikoak sortu, eraiki eta mantentzeko administrazioarekin elkarlanean aritu, horien kudeaketa-organoetan esku hartu eta derrigorrezko eskolaztea betetzeko zaintzan parte hartu ere.

Ikastetxe-kontzentrazioa dela-eta ikastetxe publikoa duen herria Barasoain da.

Barasoaingo ikastetxean, haur eta lehen hezkuntzako eskolak ematen dira. Ez da informaziorik eman matrikulatutako ikasleen kopuruari buruz, eta horiek nongoak diren ere ez da esan.

Ondoko taulan azaltzen dira udal bakoitzaren gastuak eta dirusarrerak:

Udala	Gastua	Dirusarrera	Aldea
Barasoain	1.271.999	1.506.534	234.535
Guztira	1.271.999	1.506.534	234.535

Gastuak, funtsean, instalazioak zaindu eta mantentzeko dagozkio (garbiketako materiala, gasolioa, argia, telefonoa eta abar). Ez da hor sartu, hala ere, Barasoaingo zerbitzu anitzetako langilearen nomina; hark egiten du ikastetxearen garbiketa.

Dirusarrerak Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntza bati dagozkio; hain zuzen ere, eskolak emateko instalazioen funtzionamendua, zaintza eta garbiketarekin ematen den dirulaguntza bati.

IV.2. GIZARTE ZERBITZUAK

Udaletan, gizarte zerbitzuak, oro har, gizarte zerbitzuen mankomunitate gertuenekoaren bidez ematen dira:

- Tafalla Aldeko Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen Mankomunitatea.

- Barasoaingo Udala
- Garinoaingo Udala
- Leozko Udala
- Oloritzko Udala
- Orisoaingo Udala

- Noain Aldeko Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen Mankomunitatea

- Untzueko Udala

Gizarte zerbitzuetako gastuak transferentzia arruntetan izan dira, hala gizarte zerbitzuak ematen dituzten entitateentzako transferentzietan, nola gizarte laguntza behar duten familientzako egin direnetan. Epigrafe honen barrenean sartzen dira, orobat, osasunarekin zerikusia duten gastuak (osasun-kontsultategiak) eta adindunei emandako laguntza. Leozko Udalean, etxeko etxeko laguntza emateko kontrataturiko langileek eragin-dako gastuak ere sartu dira.

Dirusarrerek, batetik, Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntzak dituzte jatorri, eta, bestetik, gizarte zerbitzuetako tasak.

Hona ekitaldiko dirusarrera eta gastuen xehetasunak:

Udala	Gastua	Dirusarrera	Aldea
Barasoain	699.291	759.078	59.787
Garinoain	3.550.134	1.061.600	(2.488.534)
Leoz	2.630.280	0	(2.630.280)
Oloritz	0	0	0
Orisoain	11.850	0	(11.850)
Puiu	428.591	394.484	(34.107)
Untzue	1.019.629	124.322	(895.307)
Guztira	8.339.775	2.339.484	(6.000.291)

IV.3. HIRI HONDAKIN SOLIDOAK

Aztergai ditugun udalak Mairagako Ur eta Hondakin Solidoen Mankomunitatean bildu dira hiri hondakin solidoak bildu eta tratatzeko zerbitzua emateko.

Tarifa berberak erabiltzen dira udal guztietan, eta Mankomunitateak finkatzen ditu, establezimendu moten arabera.

Hiri hondakin solidoak edukiontzetan bildu, eta astean bi, hiru, lau edo bostetan jasotzen dira.

Hiri hondakin solidoak Tafallako hondakindegian deusezten dira.

Mankomunitateak ordainagiriak luzatu eta kobrantza kudeatu egiten du, eta bere gain hartzen du zergadunen berankortasuna. Fakturazioa hiru hilero egin ohi da.

Zerbitzu hau dela eta, udalek ez dute bere gain hartzen gastu eta dirusarrera berezirik.

IV.4. UR HORNIKETA

Aztertutako udalak Mairagako Ur Mankomunitatean bilduta daude, Leotz eta Orisoaingo udalak izan ezik. Azken hori 2001eko ekitaldian sartu da Mairagako Ur Mankomunitatean.

Banaka ematen du udal bakoitzak ur-horniketaren zerbitzua.

Egun, udan, udal batzuek zenbait arazo dituzte herriak urez hornitzeko, eta ur-horniketako sareak ez dira egokiak eta ez dute behar adinako horniketarik; hala gertatzen da, adibidez, Leotzen eta Oloritzen.

Orbaibar aldean, hondakin-uren araztegia duten udal bakarrak Barasoain eta Untzue dira.

Mairagako Ur Mankomunitateak ur kontsumoa-ekin eta kobrantzekin zerikusia duen guztia kudeatzen du Mankomunitatera bildutako udalentsat, eta, halaber, bere gain hartzen du berankortasuna.

Leozko Udalean bada erabilera anitzeko udal brigada bat; besteak beste, brigada horrek sei hilerro, ekainean eta abenduan, ur kontagailuak begiratu eta neurketak jasotzen ditu. 2000ko ekitaldian, hauek izan dira aplikatutako prezioak:

- Herritarrek ur kontsumoa dela-eta ordaindu beharreko tasa: 30 pezeta/m³ gehi BEZa.

- Sare nagusira lotzeko tasa: 30.000 pezeta gehi BEZa

Orisoaingo Udalean, uren arduradunak bi hilerro jasotzen ditu ur kontagailuen neurketak. 2000ko ekitaldian, hauek izan dira aplikatutako prezioak:

- 12 m³ arteko ur kontsumoa: 30 pezeta/ m³ gehi BEZa.

- 13 m³-tik gorako ur kontsumoa: 60 pezeta/ m³ gehi BEZa.

- Kuota finkoa: 500 pezeta gehi BEZa.

- Ur-hartzea dela-eta ordaindu beharreko tasa: 15.000 pezeta.

- Estolderiako tasa: 40.000 pezeta.

Hona ur horniketaren zerbitzua kudeatzen duten udalen gastu eta dirusarrerak:

Udala	Gastua	Dirusarrera	Garbia
Leotz	800.241	1.083.262	283.021
Orisoain	316.458	370.841	54.383
Guztira	1.116.699	1.454.103	337.404

IV.5. KIROLAK

Hona, ondoko taulan, aztertutako udaletan dauden kirol instalazioak.

Udala	Estalitako frontoia	Estali gabeko frontoia	Kiroldegia	Kirol-pista	Igerilekua	Futbol zelaia
Barasoain	X	-	-	X	-	X
Garinoain	-	X	X	-	X	X
Leotz	-	-	-	-	-	-
Oloritz	-	X	-	-	-	-
Orisoain	-	X	-	X	X	-
Puiu	-	X	-	X	X	-
Untzue	-	X	X	-	X	X

Esan daiteke ia ez dagoela udalek eginiko kirol kudeaketarik. Mankomunitateei eta jarduera hori kudeatzen duten elkarteei laga diete udalek kirol kudeaketa; zenbait udalek laguntza txikiak ematen dizkie kirol entitateei.

Ondoko taulan udal bakoitzaren gastu eta dirusarrerak ikus daitezke:

Udala	Gastua	Dirusarrera	Aldea
Barasoain	234.491	0	(234.491)
Garinoain	5.128.677	4.628.677	(500.000)
Puiu	1.229.680	1.425.900	196.220
Guztira	6.592.848	6.054.577	(538.271)

Garinoaingo Udalaren dirusarrera eta gastuen jatorria da udalak eta Murugain elkarteak –kultura, kirol eta aisialdirako elkartea– sinatutako hitzarmena; hain zuzen ere, hitzarmena kontabilitatean islatzeko modua izan da. Udalak, horrela, kontabilitatera 4.628.677 pezeta ekarri du gastu eta dirusarrera gisa, aipatu elkarteak jabari publikoko kirol instalazioen kudeaketan bildutako kuotak direla eta. Kontabilizazio hori egiten da, hain zuzen ere, herrian ematen diren zerbitzu publikoek eragindako presio fiskala behar bezala islatzeko, ez beste ezertarako. Gastua dirusarrera baino handiagoa da udalak elkarre horri laguntza bereziak eman dizkiolako, dirulaguntzak hain zuzen.

Kirol jardueren kudeaketarekin zerikusia duten gastu eta dirusarrerak, gainerako udaletan, hauei dagozkie bereziki:

- Gastuak: kirol instalazioen mantentzea: hornidurak eta langile bereziak (sorosleak).
- Dirusarrerak: udalaren kirol instalazioen kuota eta abonuak, eta dirulaguntza txikiak.

IV.6. KULTURA

Kulturaren kontzeptupean sartu dira turismoarekin, euskararekin, jaiekin, liburutegiekin eta kultur ekintzekin zerikusia dutenak.

Turismoko jarduerak, neurri handi batean, Orbaibarraren garapenerako elkartean daude zentralizatuta; elkarre hori da turismo sustapenerako jarduerak aurrera eramaten dituenak.

Turismoak, sektore ekonomikotzat hartzen badugu, ez du garrantzi handirik Orbaibar aldeko ekonomian; har dezagun kontuan oso gutxi direla hotelak, landa etxeak eta kanpinak.

Euskararen garapenarekin zerikusia duten gaietan, esan daiteke ez dagoela ia udal jarduerarik.

Herri bakoitzeko jai nagusiek badute sustraia eta tradizioa, eta jende anitz erakartzen dute. Horietaz gainera, beste jai batzuek ere erakartzen dute turismoa; hor ditugu, esaterako, udaberri eta udazkeneko birak, zuhaitzaren eguna, kultur asteak, etab.

Liburutegi edo museorik ez egotea da Orbaibar aldeko gabezieta bat. Barasoainen besterik ez dago liburutegia, eta Valdorba elkarteak kudeatzen du.

Ondoko taulan jarriko ditugu udal bakoitzaren gastu eta dirusarrerak:

Udala	Gastua	Dirusarrera	Aldea
Barasoain	5.284.130	1.460.364	(3.823.766)
Garinoain	4.421.664	0	(4.421.664)
Leotz	3.547.894	0	(3.547.894)
Oloritz	387.389	0	(387.389)
Orisoain	537.702	0	(537.702)
Puiu	2.826.029	0	(2.826.029)
Untzue	2.444.826	0	(2.444.826)
Guztira	19.449.634	1.460.364	(17.989.270)

Honela banakatu dira gastuak: jaiak, turismo arloko elkarre eta partzuergoei eginiko ekarpenak, eta gainerakoak barne hartzen dituen beste kontzeptu bat.

Udala	Jaiak	Elkarreak	Beste batzuk	Guztira
Barasoain	4.019.355	0	1.264.775	5.284.130
Garinoain	3.058.204	538.794	824.666	4.421.664
Leotz	2.723.424	97.277	727.193	3.547.894
Oloritz	250.000	67.389	70.000	387.389
Orisoain	432.752	72.078	32.872	537.702
Puiu	2.396.262	115.645	314.122	2.826.029
Untzue	1.274.398	56.804	1.113.624	2.444.826
Guztira	14.154.395	947.987	4.347.252	19.449.634

Hona dirusarrerak:

- Barasoain: dirusarrerak kultur zerbitzuak direla eta (San Isidro eguneko orkestra) eta jaietako afaria.

IV.7. MENDIAK

Epigrafe honen barrenean baliabide naturalak aztertu dira, eta horiek zaintzen izaniko gastuak.

Udal guztiak hartuta, azalera 207,5 km² ingurukoa da.

Ondoko taulan, entitate bakoitzak likidatutako gastuak eta dirusarrerak agertzen dira.

Udala	Gastua	Dirusarrera	Aldea
Barasoain	0	4.208.759	4.208.759
Garinoain	6.953.926	5.181.139	(1.772.787)
Leotz	2.389.731	4.586.826	2.197.095
Oloritz	0	211.330	211.330
Orisoain	0	832.566	832.566
Puiu	371.975	5.552.593	5.180.618
Untzue	0	2.359.500	2.359.500
Guztira	9.715.632	22.932.713	13.217.081

Zerbitzu honetan aintzat hartu diren dirusarreak oihan-aprobetxamenduen esleipenetatik datoz, funtsean, eta baita, belarretatik, ehiza-barrutietatik eta larreetatik. Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntzak ere sartuta daude.

Hona gasturik handienak:

- Garinoain: gastuaren jatorria da Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salaren epai bat; epaiak deuseztatu egin du aprobetxamenduen ordaintetan aurreko urteetan ordaintzen zen kanona. Udalak, kontabilitatean, transferentzia arrunt gisa jaso du itzuli beharrekoa.

- Leotz: kontabilitatean jasotako gastuak eragin dituen hau izan da: ehiza-barruti publikoko terreneen errentamendua.

- Puiu: herri ondasunen mantentzeak eragin ditu gastuak.

IV.8. ARGINDARRAREN HORNIKETA

Orisoaingo Udalak besterik ez du egiten argindarraren banaketa. Zerbitzu hori dela-eta, udalak izaniko gastu arruntek 608.518 pezeta egiten dute; dirusarrek, aldiz, 1.033.882 pezeta egiten dute, eta horien jatorri bakarra zerbitzuarengatik ordaintzen den tasa da.

IV.9. EGITURA

Lan honen III. idatz-zatian aipatu bezala, egituratzat hartu ditugu tamainagatik edo edukiagatik banakatzeko interesik ez zutenak, eta baita zerbitzu orokor edo administrazioak ere, baldin eta aztertutako zerbitzuen baitan sartu edo banatu ezinekoak badira.

Ondorioz, gainerako zerbitzuetan sartu ez den gastu gutzia bilduko da egitura kontzeptupean.

Langileak izanen dira udaletako egitura-zerbitzuen osagai nagusia: gastuaren % 63,10 egiten baitu. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea da bigarren kapitulua, garrantziaren arabera: gastuaren % 29,73.

Hona udaletako bakoitzean 2000ko ekitaldian zerbitzuak eman dituzten langileen zerrenda, egituratzat hartutakoena hain zuzen:

Barasoain

- Kontratutako idazkaria; Oloritzen ere ari da.
- Zerbitzu anitzetako langilea, lanaldi osoan; lan-harremana du.

Garinoain

- Idazkaria, funtzionarioa; Orisoain eta Untzuen ere ari da.

- Zerbitzu anitzetako langilea; astean 20 orduko lanaldia du; lan-harremana du.

Leotz

- Idazkaria; lan-harremana du.
- Aholkularitza juridikoa; lan-harremana du.
- Udal brigadako 5 langile; maiatza eta urria bitartean kontratatzen dira.

Oloritz

- Kontratutako idazkaria; Barasoainen ere ari da.

Orisoain

- Idazkaria, funtzionarioa; Garinoainen eta Untzuen ere ari da.

Puiu

- Idazkaria, funtzionarioa; dedikazio eskusiboa du.
- Zerbitzu anitzetako langilea; lan-harremana du.

Untzue

- Idazkaria, funtzionarioa; Garinoainen eta Orisoainen ere ari da.

Aزتutako udaletan sortzen diren hirigintza-beharrei erantzuteko, kanpoko aholkulariak kontratatzen dira, sortzen den lanaren arabera.

Barasoain eta Oloritzen, idazkari bakarra ari baita, gastu hori langile-gastutzat hartzen da horietako batean eta transferentziatzat bestean. Azterketa honen ondorioetarako, udal bakoitzari bere zatia egotzi zaió lan-gastutzat. Hona egindako birsailkapenak:

Udala	Zenbatekoa	Ondoko taulan azalduko dira egitura-gastuak, kontzeptu ekonomikoka:
Barasoain	(1.423.024)	
Oloritz	1.423.024	
Guztira	0	

Udala	Langileen ordainsariak	Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	Finantza- gastuak	Transferentzia arruntak	Guztira
Barasoain	10.406.042	7.336.929	307.596	184.775	18.235.342
Garinoain	6.126.197	2.209.742	477.907	407.731	9.221.577
Leotz	17.627.014	5.003.774	270.359	2.201.975	25.103.122
Oloritz	2.117.964	1.343.076	0	16.680	3.477.720
Orisoain	1.407.884	500.207	0	213.258	2.121.349
Puiu	10.637.221	5.362.761	647.873	211.061	16.585.916
Untzue	2.034.173	1.967.338	781.666	8.499	4.791.676
Guztira	50.356.495	23.723.827	2.485.401	3.243.979	79.809.702
Parte hartzearen portzentaia	% 63,10	% 29,73	% 3,11	% 4,06	% 100,00

Beste alde batetik, azterturiko zerbitzuetan kontuan hartu ez diren dirusarrera arruntak erakutsiko ditu ondorengo taulak, kontzeptuka eta entitateka:

IV.9. EGITURA

Kontzeptua/Udala	Barasoain	Garinoain	Leotz	Oloritz	Orisoain	Puiu	Untzue	Guztira
Zergak	19.354.846	11.183.735	47.756.267	15.341.863	1.572.712	10.367.680	10.301.951	115.879.054
Bestelako tasak eta dirusarrerak	944.973	3.757.247	259.580	5.184.393	26.800	562.042	689.086	11.424.121
Nafarroako zergak	14.890.291	10.697.872	9.072.270	3.857.959	2.388.670	10.023.675	3.741.970	54.672.707
Bestelako transferentziak	724.958	449.812	569.686	28.500	161.799	522.010	679.047	3.135.812
Ondareko bestelako dirusarrerak	1.440.857	1.444.936	91.643	285.946	291.279	314.885	3.966.572	7.836.118
Bestelako dirusarrerak	183.684	0	7.700.000	0	0	43.220	3.600.000	11.526.904
Guztira	37.539.609	27.533.602	65.449.446	24.698.661	4.441.260	21.833.512	22.978.626	204.474.716

V. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK.

Atal honetan jarriko ditugu azterlanetik heldu diren ondorio eta gomendio nagusiak. Haiekin batera, toki sektore publikoan garatzen ari diren egoeraren eta joeren azterketa estrategikotik sortu direnak. Hori guztia, noski, burutu dugun azterlanaren norainokoa eta mugak kontuan izanda.

Zerikusia duten alderdi guztiak aztertu, hausnartu eta kontsentsuatzekoak dira ondoren azalduko ditugun gomendioak; ondorioz, eskura dauden baliabideen araberrako lehentasunak ezarri behar dira aurretik, eta auzoen jarrera ere aintzat hartu, orobat Orbaibar aldea osatzen duten toki entitateen erabakiak. Hori guztia, jakina, tokiko zerbitzu publikoen kudeaketa hobea lortzeko asmoarekin, kalitate-kostu koordinatuen barruan.

1. Aztertutako udalek ez dute antolamenduzko egitura politikorik, baina horietako batzuk Orbaibar aldean daude. Udalek, azkenaldi honetan, elkarrekin lan egiteko asmoa erakutsi dute eta, Orbaibarren garapenerako elkartearen bidez, garapena sustatzeko asmoa.

2. Gaur egun, aurreko toki entitateek ematen dituzten zerbitzuek 127 milioiko gastua egiten dute, hau da, 66.269 pezeta inguru Orbaibar aldeko biztanle bakoitzeko.

Gastu horretatik, 80 milioi egitura-gastuak finantzatzeko dira –alegia, ehuneko 63–. Hurrengoie dagokie, funtsean, gastu hori: administrazio-langileei eta bestelako langileei –50 milioi–, eta ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuei –24 milioi.

Aztertu ditugun gainerako zerbitzuen gastua 47 milioikoa da –hau da, gastu guztiaren ehuneko 37–. Ondoren zehaztuko ditugu, milioika eta ehunekotan:

Zerbitzua	Zenbat (milioitan)	Ehunekoak
Hezkuntza	1,3	% 2,70
Gizarte Zerbitzuak	8,3	% 17,71
Hiri hondakin solidoak	0,0	% 0,00
Ur-hornidura	1,1	% 2,37
Kirolak	6,6	% 14,00
Kultura	19,4	% 41,30
Mendiak	9,7	% 20,63
Argi-ind. hornidura	0,6	% 1,29
Guztira	47,0	% 100,00

Aztertutako gastuaren ehuneko 93,64, ikus daitekeenez, gizarte zerbitzuek, kirolek, kulturak eta mendiek azaltzen dute. Horren arrazoia da udalek, neurri handi batean, oinarrizko zerbitzuak –hondakin solidoak eta ura, adibidez– Mairagako Ur Mankomunitatearen esku dituztela utzita.

Bestalde, kualitatiboki garrantzitsuak diren zerbitzuek, hezkuntzak adibidez, ez dute gastu handirik hartzen, udalok gertu baitituzte herri handiagoak, Tafalla esaterako.

Aipatutako zerbitzuak –gastuaren ehuneko 93,64 egiten dutela esan dugu– udalarekin lotura handia duten zerbitzuak dira gizarte ongizate, bizi kalitate eta baliabide naturalen babesaren aldetik.

3. Aurreko gastuak, aurrekontuen arabera, 241 milioiko dirusarrerekin finantzatu dira: 125.982 pezeta inguru egiten dute herritarreko.

Egindako gastuekin konparatuz gero, 114 milioiko finantzaketa-soberakina ateratzen da.

Kontuan hartzen bada egin dugun zerbitzu-mailaketa, egiturazkoak 204 milioi dira, eta gainerakoak 37 milioi. Gastuok, gehienbat, baliabide naturalen herri aprobetxamenduak dituzte jatorri (belarrak, ehiza barrutiak, etab.).

4. Administrazio-alorreko egitura-gastuak tesuinguru egokian kokatzeko asmoz, hurrengo laukian jasoko dugu alor horretan dauden langileen kopurua, bai aztertutako entitateetan, bai ondokotan ere:

Biztanle kopuru txikixeagoko toki entitateak (Agoitz eta Olazti).

Baztan. Askoz ere biztanle gehiago ditu, eta egitura geografikoa eta sakabanaketakoa handiagoak ditu; antolamendu politikoa ere oso bestelakoa da, entitate bakarra baitago ibar osorako.

Erronkari, Zaraitzu eta Aezkoa ibarrek biztanle kopuru txikixeagoa dute eta azalera handiagoa; beraz, biztanleen sakabaneta handiagoa da.

Erreferentzia	Orbaibar Valdorba	Aezkoa ibarra	Zaraitzu ibarra	Erronkari ibarra	Baztan	Agoitz	Olazti
Biztanleak	1.915	1.154	1.825	1.872	7.806	1.848	1.622
Azalera (Km ²)	207,5	211,0	310,0	412,2	376,8	13,2	19,6
Biztanleak / Km ²	9,23	5,47	5,89	4,54	20,72	140,00	82,76
Gastuak (milioitan)	127 (5)	121 (4)	212 (3)	281 (2)	768 (2)	174 (2)	204 (1)
Idazkariak	4	5	4	4	1	1	1
Ekonomialari/ kontu hartzaileak	1	-	-	-	1	-	1
Administrari-ofiziala	-	-	-	1	4	-	1
Administrari laguntzailea	-	-	1	-	1	2	-
Zerbitzu anitzak	3	3	3	3	1	1	1
Egituratzat hartutako pertsonak, guztira	8	8	8	8	8	4	4
Administrazioko langileen kostua biztanleko (pezetatan) (6)	17.893	18.064	11.513	11.000	2.385	4.800	6.600
Langileak, km ² bakoitzeko	0,04	0,04	0,03	0,02	0,02	0,30	0,20
Langileak, 100 biztanleko	0,42	0,65	0,44	0,43	0,10	0,22	0,25

(1) 1996an

(2) 1997an

(3) 1998an

(4) 1999an

(5) 2000an

(6) Kostua zehazteko, mailako lansaria baino ez da erabili.

Datu horiek aztertu, eta, konparazioaren mugak muga, hurrengoak azpimarratuko ditugu:

- Orbaibar aldeko datuak, neurri batean, bat datoz Pirinioko ibarrekin (Erronkari, Zaraitzu eta Aezkoa), baina kostuen ratioak okerragoak dira. Aipatu beharrekoa da, hala ere, Orbaibar aldeak duen biztanle dentsitatea Pirineoko ibarrek duten biztanle-dentsitatearen halako bi dela; beraz, ratioak dezente hobeak behar zuten.

- Orbaibar aldeak duen administrazio-langileen kopurua eta alderatzeko erabili diren ibarrek dutena berdintsua da. Aipatzekoa da, bereziki, Baztan ibarrarekin eginiko alderaketa; izan ere, Baztanek, Orbaibar aldeak baino lau aldiz biztanle gehiago du, eta egiturakotzat har daitezkeen langileen kopurua berdina da. Agoitz eta Olaztik dituzten langile kopuruaren halako bi ditu Orbaibar aldeak, biztanle kopurua berdintsua izanik.

- Orbaibar aldeak dituen egitura gastuak handiak dira; hau da, gastu denak guztira hartuta, egitura gastuek horien ehuneko handi bat egiten dute. Horren arrazoia da udalek eman beharreko oinarriko zerbitzu publikoak, neurri handi batean, udalez gaindiko entitateen esku utzita daudela

(mankomunitateak, elkarteak, partzuergoak, etab.).

Laburbilduz, Orbaibar aldeak, aipatu diren entitateekin alderatuta, honako eberdintasunak ditu bereziki:

- Idazkari kopurua, 7 entitate izatearen ondorioa.

- Administrazietan ere bada aldea, horrelakorik ez baitago; salbuespena Leotz da, aholkulari juridikoa baitu.

- Aurreko egoera dela-eta, idazkariak denbora dezente eman behar izaten du lan administratiboa egiten eta datorren jendea hartzen.

Laburbilduz, Orbaibar aldearen azalera handiak, dentsitate demografikoak eta egungo antolaketa politikoak dakartena da handiagoak izatea langileen ratioa –langile kopurua, ehun biztanleko– eta biztanleko kostua. Halaber, idazkari lanpostuek garrantzi handia dute plantilla barrenean, egungo arautegiari jarraikiz.

5. Egungo baldintzetan, udal guztiek banaka ematen dituzte zerbitzu publikoak, eta oinarriko zenbait zerbitzu publiko kanpora aterata dituzte:

Oinarrizko gizarte zerbitzuak: zenbait mankomunitate arduratzen dira horiek kudeatzez (Tafalla eta Noain).

Hiri hondakin solidoak bildu eta tratatzea: Mai-ragako Mankomunitateak egiten du.

6. Gure iritzirako, eta aurreko ondorioak ikusita, egokia litzateke entitate bakarrean biltzea zerbitzuen kudeaketa. Hurrengoak aipa ditzakegu hori zuzenesteko:

- Udal batzuek adierazi dute Orbaibar aldean garapena sustatzeko borondatea dutela, Orbaibarren garapenerako elkartearen bidez hain zuzen.

- Toki administrazioari buruzko Foru Legeak ere horretarako bidea ematen du; izan ere, bere 30.3 artikulua ezarri duenaren arabera, "ohiko elkarten baitako udalek aipatu elkarten esku utz dezakete zerbitzuak emateko edo jarduerak burutzeko eskumenen erabilpena".

- Ikusita egun zerbitzuak ematen diren modua, hau da, mota eta izaera orotako entitateen bidez (udalak, partzuergoak, mankomunitatea eta zerbitzu udalekotuak), ez dirudi zerbitzuak modu arrazionalen ematen direnik.

- Begibistakoa denez, funtsezko zerbitzuei gero eta kalitate handiagoa eskatzeko joera dago.

Zerbitzuen bateratze hori administrazio unitate berri baten bidez egin beharko litzateke, zeina arian-arian eskumenak bereganatzen joanen baillizateke.

Azkenik, gure ustez, bateratze horrek ez luke zerbitzuak emateko kostuaren murrizketa nabarmenik ekarriko, epe laburrean bederen; bai, ordea, zerbitzuen egitura arrazoizkoagoa, kalitatea hobetuko lukeena.

7. Arian-arian bereganatu beharko dituzte eskumenak ibarreko Batzarreak edo bestelako administrazio-unitateak; izan ere, zer giza- eta gauza-baliabide diren beharrezkoak finkatu behar da aurretik, egun daudenekin konparatu, eta ezarpen-egutegia erabaki.

Gure ustez, lehen fasean, administrazio- eta kontabilitate-zereginak bateratu behar dira (idazkaritza, kontu-hartzailtza, diruzaintza, ordainarazpenak eta errentak, derrigorrezko dirubilleta...). Giza-baliabideei eta baliabide informatikoei buruzko aurreikuspenak eskatuko lituzke bateratze horrek.

Hurrengo faseetan, aldiz, egun banaka ematen diren zerbitzuen kudeaketa bateratuari ekin

beharko litzaioke. Hurrengoak azpimarratuko ditugu, duten garrantziarengatik:

- Uraren kudeaketa osoa, hiru faseak alegia: alta, banaketa eta saneamendua.

- Oihan aprobetxamenduen kudeaketa; horrek ez du eragotziko baliabideak udal bakoitzari atxikitzea.

- Hirigintza arloko aholkularitza zerbitzuak bateratzea.

Prozesu honek ez du esan nahi egungo udal-tan biztanleei arretarik egingen ez zaienik bai langileen bidez, bai komunikazio-sistema berrien bitartez.

Funtsean, eta azken laburpen gisa, Orbaibar aldea osatzen duten toki entitateen biztanle kopuruak, azalera geografikoak eta egungo antolaketa politikoak, zerbitzuak emateko egiturekin batera, zera eskatzen dute: zerbitzu publikoen kudeaketa entitate bakarrean bateratzea, egitura arrazoizkoago bat lortzeko, zeinak zerbitzuak emateko kostuak egokituko dituen eta zerbitzuen kalitatea hobetuko duen.

Ez dagoenez tradiziozko egitura administratibo bat, uste dugu horretarako sortutako entitate administratibo baten esku utz daitezkeela aipatu eginkizunak.

Abiapuntutzat hartuta, alde batetik, Orbaibar aldeko biztanleen eta udalen atxikimendua, eta, bestetik, udal bakoitzaren ohiko eskubideen babesa, hauexek beharko lirateke, funtsean, aipatu bateratzea gauzatzeko:

- Giza-baliabideei buruzko azterlan bat egin beharko litzateke, egun dauden langileak abiapuntutzat hartuta, baina behar berriak eta lanpostu jakin batzuk birmoldatzeko aukera baztertu gabe.

- Behar diren gauza-baliabideak aztertu beharko lirateke, ofimatikari buruzkoak batez ere.

- Eskumenak bateratzeko egutegia edo lehen-tasunak ezarri beharko lirateke. Administrazio-, ekonomia- eta kontabilitate-zereginak zertuko lirateke lehenbizi, eta gainerako zerbitzuak gero, arian-arian.

Bateratze prozesuaren zabaltasuna eta zailtasuna kontuan hartuta, beharrezkoak lirateke Nafarroako Gobernuaren lankidetzaren eta aholkularitza. Ildo horri jarraiki, Toki Administrazio Departamentuak, orain gutxi, lehiaketa sustatu du aztertzeko idazkaritza eta kontu-hartzailtzako lanen batzea Foru Komunitateko zenbait lekutan, eta leku horien artean dago Orbaibar aldea.

Azkenik, ganbera honek uste du, aipatu prozesuaren zailtasunak zailtasun, bateratzearen zuzeneko abantailak handiak izanen liratekeela biztanleentzat, bai finantza-aurrezpenarengatik, bai zerbitzuaren kalitatearen aldetik: Orbaibar aldeko ongizate-maila hazi egingo litzateke.

Lan hau egiteko ardura izan duen Francisco Javier Sesma Masa auditore jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2002ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	